



ARGIA



NAPARDEATH

Euskal Herri imaginario (eta friki) baten alde

#2.649 | 2019/06/23 | 3,90 €



**"Erroko aldaketak
planteatzen
ditugu"**

10 | SAIOA IRAOLA



**Indiako
nekazal borrokaren
alargunak**

20 | NAZIOARTEA



**Kubako 'Paradigmas
Emancipatorios'
topaketak**

26 | GIZARTEA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #243

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



INFORMAZIO BURUJABETZA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIA

AZALEKO ARGAZKIA:
KATIHOTSAK LOGIA
KULTUR ELKARTEAK UTZIA

Iritziak

- 15 | ESTITXU GARAI ARTETXE
- 16 | KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
- 17 | ENEKO OLASAGASTI
- 17 | ITZIAR BARDAJI GOIKOETXEA
- 18 | PAULINE GUELLE

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:
- JÚLIA DE OROVIO
- 54 | BERANDUEGI



IRANTZU PASTOR

20 | INDIAKO NEKAZAL KRISIAREN ALARGUNAK
erreportajea idatzi du Igone Mariezkurren, Irantzu Pastoren argazkiekin. Indiako jendartereko hierarkia guztien azpiko mailatan kokatuak, jasaten duten zapalkuntza anitza da.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | SAIOLA IRAOLA, GORPUTZA ERDIGUNERA

"Erroko aldaketak planteatzen ditugu, eta instituzioek ez dute betetzeko borondaterik"

Danele Sarriugarte Mochales

26 | MIREN SAINZ ETA GORKA ZOZAIA

"Kubatik ekarritako gako inspiratzaileak hemengo herri mugimenduekin partekatu nahi ditugu"

Z. Oleaga

30 | BERAÑO 1822KO ESKUIZKRIBU BAT ARGITARA

Uscaldunak garen ezquero...

Mikel Taberna Irazoki

34 | EUSKARA

Hitano ikastaroen gorakada

Onintza Irureta Azkune

36 | CARLES VIÑAS

"Kritikoa naiz ezkerrekin, futbola eskuin muturraren esku utzi duelako askotan"

Maria Colera Intxausti

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Inaut Gonzalez de Matauko, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Z. Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea
Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona
943371545

Ametzagaña taldeko kidea da
ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)



10 urtez bizitza bizigarriaren alde

Bizi! mugimenduak hamarkada bete du. Txiki hasitakoa, txikitik eragiten jarraitzen du, baina indartuta. Urteotako hamaika ekimen eta proiektu lekuko. Ekintzetan desobedientziak eta umorez, eta alternatiben sorkuntzan elkarlanez eta iraunkortasunez. Adibidez, Bizi!-ko militante askoren ekarpena gabe Eusko ez litzateke egun Europan gehien erabiltzen den tokiko moneta. Urtebetetzean ondo merezitako jaia egin dute Baionan, baita igandetan irekita dagoen supermerkatu baten barruan, hobeak dakiten gisan, ospatu ere.




LE DIMANCHE
C'EST POUR
SE RETROUVER!




OÑATIKO GAZTE BATZUEK
ERTZAINEK ERASOTU ZITUZTELA
SALATU DUTE. HERRIKIDEEN
AURKAKO ERASOEN AURREAN
ELKARTASUNA ADIERAZI
NAHI DIEGU. EZ DUGU ETSIKO
HERRI HONEK JASATEN DUEN
ERREPRESIOAREKIN AMAITU ARTE!

@OnatikoErnai



HAU EZ DA ONARGARRIA
@ERTZAINZAEJGV
GERTUKO POLIZIA? POLIZIA
DEMOKRATIKOA? HALAKOAK
BALIRA DOAKO JIPOI HAU
EMAN DUTEN AGENTEEK,
DEZENTZIA MORAL ETA
PROFESIONALITASUN
HANDIAGOA IZANGO LUKETE.
GURE ELKARTASUN ETA BABES
OSOA OÑATIKO GAZTERIARI

@sortuEH



HAU ORAINDIK HONG KONG
DA. GALDETZEN DIOTE CARRIE
LAMI EA BESTE MANIFESTAZIO
BATEN BELDURREZ UTZI
DUEN BERTAN BEHERA LEGEA;
EA PEKINEN AGINDUAK
BETE DITUEN ETA EA
HONGKONGDARREN AURREAN
DESENKUSATU DEN. LIDER
POLITIKO BAT PRENTSAREN
BONBAKETAREN AURREAN.

@adrianfonicillas



MUNDUKO PRENTSAK
ARINTASUNEZ EROSI DITU
#HONKONG-EKO BI MILIOI
PARTE-HARTZAILEAK.
ANTOLATZAILEEN KOPURUA
EMATEN DUGUN LEHEN ALDIA
DA. ORAINDIK EZ DUT IKUSI
KONTAKETA MODURIK. EZIN
GENEZAKE DISIMULATU APUR
BAT ZEIN ALDEKOAK GAREN?
KAZETARIAK GARA,
EZ AKTIBISTAK

@adrianfonicillas



IDOIA ZABALETA

España Suma

XABIER LETONA

Eratu dira udal berriak eta ezin esan ezusteko handirik egon denik. Udal hauteskundeak emaitzekin eta ondorengo itun iragarpenetik, dena edo gehiena aurreikusia zegoen. Beste behin ere, ezustekorik izatekotan Nafarroako herriren batzutan izango zen. Baina ez, PSNk eskuinari eman baitizkio beretzat ez ziren alkatetza guztiak. Navarra Sumarekin (NS) egindako ituna argia izan da: aldaketaren alderdi abertzaleei apurrik ere ez, PSNk goberna zezakeen lekuetan NSk sostengua eman dio eta NSk goberna zezakeenetan PSNk agintea eman dio. Navarra Suma gehi PSN, oraingoan España Suma bihurtu da. Iruñea, Eguesibar, Barañain, Burlata, Lizarra eta beste asko Nafarroako erregimenaren esku geratu dira. 2007ko *abuztu-kada* ospetsua *ekainkada* bihurtu da.

Orain ikusi beharko da horrek nola eragiten dion Nafarroako Gobernuaren eraketari. Udaletako jokaldiak erakutsi du Maria Chivite izan daitekeela lehendakari, baina NS-ren sostenguarekin. PSN, Geroa Bai, Podemos eta I-Eren aukera ere hor dago, baina lehen oso zaila bazen, orain ez da ia zirrikiturik ikusten.

EAeri dagokionez, EAJ-PSEren nagusitasunak bere bidea egin du, eta herritarren egonkortasun zoriontsuak beste urrats esanguratsu bat eman du. EH Bilduk hamai-ka lekutan lortu du herri plataformen sostengua eta hainbatetan Ahal Dugurekin jardungo du gobernuan. Gaur gaurkoz, alenatibarik nonbait egosteko aukerarik bada, hortxe da. Egia esan, aurrerantzean ez litzateke batere txarra hauteskunde garaiko sigla sopa –eta zaparrada– gutxiago entzungo balitz eta herritarrentzat onuragarriak diren programa eta edukia gehiago aipatuko balira. ●

GAIZKI ERRANKA

Villana Esporrrin



SANTI LEONÉ

Gogoan dut Maite Esporrrin PSNko zinegotziak *Diario de Navarra*-n idatzi zuen artikulua bat orduko alkate Yolanda Barcinaren politika kritikatzeko. Gogor salatu zuen alkaterearen estiloa, eta ez zuen adjektiborik falta arerioa deskribatzeko -faxistatik goiti, edo hor nonbait-. Parterik hoberena, halere, hondarreko paragrafoan heldu zen: errandako guzia erranda ere, PSNk arduraz jokatu eta UPN babesten segitu bertze erre-medioren ez zuela ondorioztatzen zuen gure Esporrrinek. Horixe izan da beti PSN Iruñean eta Nafarroan, erretorikan sutsu baina ekintzetan eskuinaren morroi.

Hori dela eta, Iruñean eta bertze hainbat tokitan alkatetza aldaketaren alderdiekin adostea izanzen zatekeen sorpresa; Navarra Sumari bidea erraztu izana, berriz, espero izatekoa zen. Ez da, beraz, traiziorik izan; erran nahi baita, bakar aldiz emandako hitza jan duenak enegarren aldiz hitza jateak traizioa izateari utzi eta tradizio bihurtu den heinean.

Azalpen sinesgarriak ezean, azkenaldian modan dagoen metodo bat baliatu zuen larunbatean PSNko zinegotziak: biktimarena egin. Bertzeak bertze, Casadok, Arrimadasek edo Riverak erabili dute metodo hori Euskal Herriko eta Kataluniako zenbait herritan egindako bisitetan. Iraindu nauzue, ergo arrazoi dut. Tira, sare sozialetan hedatu den bideoan ikusten da Esporrrinek, udaletxetik eskapo doala, kazetariak bertzerik ez duela inguruan eta, halere, haren bizkartzainak borra batekin mehatxu egin duela. Baina horiek txikikeriak dira. PSNkoaren tokian banintz, orain artikulua bat idatziko nuke -"Villana Esporrrin", adibidez- eta ironikoki nire burua, ez dakit bada, Yoko Onorekin konparatuko nuke -"gauza guzien errua dut"- . Ez, ez da serioa, baina estilo horrek bere publikoa badu. Bertzalde, PSNtik inork ez du deus espero. Ezta maila intelektualean ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"ORAIN GU GATOA LAGUNTZA ESKE"

337.462 EURO 11/13 AUZIAREN GASTUEI AURRE EGITEKO

Presoen aldeko lana egiteagatik auzipetutako 47 lagunek epailetak dakartzen gastuen aurreikuspena jakinarazi du. 337.462 euro orotara, 7.180 auzipetu bakoitzeko. Elkartasun ekonomikoa bideratzeko kontu korrontea zabaldu dute. "Madrilerako joateko eszedentziak, lizentziak edota opor egunak eskatu beharko ditugu, eta langabezian daudenek arazo handiak edukiko dituzte, hemendik eta epaileta amaitu arte, soldapeko lan bat aurkitzeko". Egingo duten gastua horrela banatu dute: arlo juridikoa 236.440 euro, garraioa 28.950 euro, estantzia: 72.072 euro. **2019/06/13**



Kapitalak kontrolatzen du robotika



JUAN MARI ARREGI

Mendeurrena ospatzen ari den Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) alarma jo du enpleguaren etorkizuna zalantzan dagoelako. Baina arazoaren muina zein den ez du esan: kapitalismoa bera da robotikaren eta adimen artifizialaren atzean dagoena. Bai robotikak eta bai adimen artifizialak ere, munduko lanpostuen bi heren automatizatuko dituzte –partzialki edo ia erabat– hamarkada gutxiren buruan, roboten garapenak aurrera egin eta makinek euren kabuz ikasteko gaitasuna eskuratzen duten neurrian.

Ustez gizakiek soilik egin zitzaketen lanak makinek ere egin ahal izango dituztela jakitun, LANEk neurriak eskatu ditu teknologia hori beti egon dadin “gizakiaren kontrolpean”. Lanari eragiten dioten behin betiko erabakiak “gizakiek hartu behar dituzte, eta ez algoritmoek”, dio erakundeak, nahiz eta bere ustez auzia ezin den “robotak edo gu” eztabaidara mugatu: “Herritarrontzat onak izango diren konponbideak bilatzeko politikak egin behar dira”.

Horren aurrean, LANEk espero du ekonomien “ekologizatzek” –esaterako klima aldaketaren kontrako borrokak– 24 milioi lanpostu global sortuko dituela, eta karbono isurietatik libre dauden ekonomiarantz egokitzeko prozesuan galduko diren sei milioi lanpostuak konpentsatuko dituela. Dioenez, aldaketa demografikoak menpekotasun maila handia ekarriko du eta 2030erako 475 milioi lanpostu bideratuko dira horretara.

LANEk ahaztu duena –benetan ahaztu al du?– eta aipatu ere egiten ez duena zera da: Kapitalismoa beti izan dela basatia. Ez badugu beste sistema alternatibo bat sortzen, robotika eta adimen artifiziala bere eskuetan egongo dira kontu balantzeak hobetu diezazkioten, eta ez gizakien kontrolpean. ●



Eskandalua hezkuntzan

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Guraso batzuei eskandalagarria iruditzen zaie hezkidetzak eta sexualitatea lantzea eskoletan. Baina 8 urterekin pornografia kontsumitzen duten mutilen eta 14 urterekin beren alua ongi ezagutzen ez duten nesken aroan, eskandalua da seme-alabentzat heziketa sexu-afektiborik nahi ez izatea, identitate sexual anitzak ez onartzea, harreman osasuntsu eta orekatuak lantzen dituen Skolae programa arbuizatzea genero berdintasuna lortua dagoela argudiatuz. Guraso horiek eramango nituzke nik epailearen aurrera.

Ikasgeletan matxismoaz eta klitoriaz hitz egiterik nahi ez duten gurasoak, etxean lantzeko kontuak direla diotenak, umeei sexualitateaz hitz egiteagatik irakasleei “pederasta eta pedofilo” deitu dieten gurasoak, horiek bai beldurgarriak. Zer nolako gizartea, zer nolako burbuila, nahi dute eraiki? Jakina eskolan landu beharreko gaiak direla gorputza, identitatea, rolak eta estereotipoak. Genero arau zurrunez jaiotzetik baldintzatzen gaituztela ukatzea errealtatea ukatzea da. Eta heziketa sexu-afektiboa tabu bihurtzea da funtsezko premia bati erantzun nahi ez izatea, beste alde batera begiratzea eta seme-alaben sexualitatea zalantza, kezka eta desinformazioaren esku uztea.

Guraso hauen erruz epailearen aurrean deklaratu behar izan dute hamar profesionalak (Skolae programa idazten aritu diren bost, eta beste bost tutore). Salatzen dutenez, genero ideologian doktrinatuta nahi dituzte euren seme-alabak eta gizonen aurka egiten du Skolae programak (emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortua dagoela argudiatuta). Jakina, politikakeria maltzurrenak ez du aukera galdu, gizarteko sektore erreakzionarioak hauspotu eta hezkuntza bilakatzeko gobernuaren aurka egiteko tresna. PP, UPN eta VOX aritu dira giroa gaiztotzen eta kutsatzen; ez da denbora asko Katalunian irakasleek doktrinatzen dutela esanez kanpaina gogorra egin zutela, eta Nafarroan ere ezaguna zaigu mantra bera, ikastolen aurka egin dutenean. Baina zurrumbilo politikotik harago, mamia-ekin gera gaitezen: Skolae programa derrigorrezkoa da Nafarroako ikastetxe publiko eta kontzertatueta eta 0-20 adina hartzen du gainera, alegia derrigorrezko hezkuntza osoan zehar berdintasunean hezteko programa jasoko dute haur eta gazteek, eta aurrerapauso izugarria da hori. Bejondeiola. ●



LAU URTEKO ESPETXE ZIGORRA CAMIORENTZAT

USTELKERIA. Mariano Camio Getariako alkate ohia (EAJ) lau urteko kartzela zigorrera kondenatu dute Balenciaga auzia dela eta. Administrazio desleiala eta merkataritza-dokumentuen faltsutzeagatik zigortu dute. Bi isun ere ordaindu beharko ditu: Cristobal Balenciaga fundazioari 43.687 euro eta Berroeta Aldamar sozietateari 426.093 euro. 4,8 milioi euroko kostua izan behar zuen Getariako Balenciaga museoak eta 30 milioi gastatu ziren azkenean.

GREBA EGUNAK

26

Gipuzkoako adinekoen egoitzetako langileek egingo dituzten greba egunak dira, ekainaren 17tik uztailaren 12ra etenik gabe egoitzetan eta eguneko zentroetan.

62 Egun egin dituzte greban ELAkoek 2008ko irailetik.
5.000 langile dira sektorean.



Euskaltzaindiak genero markarik gabeko izen batzuk onartu ditu

 **AXIER LOPEZ**

2011n ikuspegi binarioan –gizonak eta emakumeak– oinarritutako izendegia argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Generorik ez duten euskarazko ehunka izenei izaera aldarazi eta ordutik familia askoren buruhauste eta oztopo bilakatu da sailkapen hori. Kritika andana jaso ostean, erakundeak izen mistoei atea ireki die: 4.730 izenetatik 445 genero markarik gabekoak zerrendan agertzen dira, gehienak toponimiari lotutakoak

AURREKARI GARRANTZITSUA

Euskaltzaindiaren webgunean dago izendegi eguneratua. Emakumeentzako eta gizonentzako izenez gain, orain genero markarik gabekoak –izen epize-noak– zerrenda ere agertzen da. Sailkapen horrek momentuz kanpoan uzten ditu oso ohikoak diren genero markarik gabeko izen asko: Lur, Sua, Haizea eta abarrak. Baina aurrekari garrantzitsua da, “izaera irekia izango du izendegi berriak eta aldiro-aldiro gaurkotuko dela” adierazi baitu Euskaltzaindiak.

IZEN BERRIAK

Onartutako izen batzuk eskaini ditu Euskaltzaindiak webgunean: Abo-di, Aiuri, Amaiur, Amets, Araitz, Argi, Bihotz, Garai, Gorbeia, Haize, Iparla, Iraultza, Itzel, Kemen, Larraine, Lizar, Luzaide, Muxika, Pallas, Udalatx....



HOMOFOBIA. Brasilgo Epaitegi Gorenak homofobia arrazakeria delituaren parekoa dela ebatzi du. Legeak homofobia delitua jaso behar duela erabaki du, arrazakeriaren antzeko trataera emanez. Legebiltzarraren jarriera “axolagabetzat” jo du, 30 urtetan ez duelako legedirik garatu arlo horretan.



JUAN SEBASTIAN ELKANO. Getariarrari buruzko Gipuzkoako ipuin lehiaketan Espainiako militarrek izango dira epai-mahai eta sariemaile. Uztailaren 6an Espainiako Armadak Getarian antolatu duen Zeruertza ekimenaren barruan dago sari banaketa ekitaldia.



MARTA HARNECKER. Idazle, zientzialari, kazetari eta pentsalaria 82 urterekin hil zen ekainaren 15ean. Txilen sortu zen Austriako etorkin familia batean. Autore marxista-leninista garrantzitsu honek etengabe aztertu zuen langile mugimenduaren eta ezkerren bilakaera.



ERROKO ALDAKETAK PLANTEATZEN DITUGU, ETA INSTITUZIOEK EZ DUTE BETETZEKO BORONDATERIK



Urtarrilean utzi zuen Euskal Herriko Bilgune Feministako koordinazio-lantaldea Saioa Iraolak, hamar urtez aritu ostean, baina ez du erreta amaitu, eta pozik dago horrekin. Kontatu digunaren arabera, opari bat izan da azken hamarkadako jarduna: munduan egoteko eta horri begiratzeko leku bat eman dio militantzia feministak. Talaia horretatik hitz egin dugu bere ibilbideaz.



DANELE SARRIUGARTE MOCHALES



DANI BLANCO

Oker ez banaiz, jaioterriak eragin handia izan du zure bide politikoan.

Ni leitzarra naiz, eta halako herri batean bizitzeak –herri ttiki batean, maskulinitate hegemonikoak eta tradizioak indar handia daukan toki batean– markatu egiten du neska gaztea. Adibidez, pilotari oso lotutako herria da: 7 urte geneuzkala, hiru neska hasi ginen aurreneko aldiz hango pilota eskolan, eta hor ikusi genuen, gure lekua aldarrikatzen genuen momentuan, zer erresistentzia agertzen ziren bai gaztetxoek aldetik bai gurasoen aldetik. Ez genuen ulertzen, baina guk gurean segitu genuen.

Leitzan bertan egin zenuten lehen ekintza.

Bai, Sarriopapel herriko paper-fabrikan inguruan. 2008an, nik eta Jonek, beste kide batek, iritzi artikulua idatzi genuen Sarriopapeleko egoera salatzeke, LABeko Lurdesek lagunduta: 1976tik 40 urte zeramatzaten esku-lanerako emakumerik kontratatu gabe. 460 langile inguru zeuden enpresa hartan. LABek gaia aurrez enpresa barruan landu bazuen ere, gaia kalera ateratzea erabaki genuen, eta sozializazio lan handia egin genuen herrian, ea nola zitekeen han emakumerik ez kontratatzea esku-lanerako. 2011ko ekainean herriko eta

eskualdeko emakumeen curriculumak biltzeko kanpaina egin genuen: 60tik gora bildu genituen, eta ekintza sinboliko bat eginez, lantegira joan eta han entregatu genituen. Egundak bertan hasi ziren emakumeek deitzen.

Arrakasta izan zenuten, beraz.

Bai. Uda horretan, hemeretzi emakume kontratatu zituzten, eta geroztik, urtero kontratatu dituzte emakumeak, udan lan eskaria areagotzen baita. Batzuek lanpostu finkoak dituzte.

Herriak berak nola hartu zuen?

Zurrunbilo handia sortu zuen. Azkenean



Saioa Iraola Urkiola

LEITZA, 1987



Gaztetatik militatu du mugimendu feministan. Kazetaritzako lizentziatura eta feminismo eta genero-ikasketen masterra egin ditu. Hainbat komunikabidetan kolaboratu du, besteak beste: *Karrape Irratia*, *Info 7* irratia, *Gaur 8* eta *Ttipi-Ttapa* aldizkariak. Formakuntza feministan ere ibili da, hitzaldiak ematen.



instituzio ekonomiko horrek inpaktu handia du herrian, eta galdetzen ziguten ea nola egiten genuen horren kontra. Guk esaten genuen ez ginela horren kontra ari, baizik eta gure biziaren eta herriaren etorkizunaren alde, herriko eta eskualdeko emakumeek herrian bertan lan egiteko aukera izan zezaten.

Bilgune Feministaren koordinazio-lantaldean egin dituzun hamar urteotan, gauza asko gertatu da. Besteak beste, ETAk su-eten iraunkor eta egiaztagarria iragarri zuen. Zuen irakurketa aurkeztu zenuten.

Aieteko bake-konferentziaren aurretik, gonbidapen bat jaso genuen nazioarteko taldearen eskutik, eta bezperatan, igandean, haiekin bildu ginen. Guk, ordura arte, bi ildo landu genituen batez ere: alde batetik, uste genuen emakumeen parte-hartzea sustatu behar zela, bitartekoak jarri behar zirela emakumeek gatazka politiko-armatuaren konponbidean sortzen ziren egitasmoetan parte

hartzeko. Beste alde batetik, iruditzen zitzaigun ikuspegi feminista txertatu behar zela gatazkaren beraren eta bakearen ezaugarritzean.

“Hau ez da gure bakea” aldarrikatu zenuten, besteak beste.

Batzuek esan ziguten ez zela momentua hori planteatzeko, baina gu interpelatzaren ari ginen, eta mahai gainean jarri nahi genuen bakea ez dela soilik indarkeria jakin baten amaiera, gure herrian gatazka politiko armatua egon dela beste indarkeria batzuekin gurutzatua eta hala dagoela gaur egun ere. Horiek guztiak aintzat hartu eta horiei guztiei konponbide bat eman arte gure herrian bakerik ez da izango. Ez genion garrantzirik kendu nahi gertatzen ari zen horri, baina mahai gainean jarri nahi genuen gure ikuspegia.

Harrezkero bide bat egin da, ezta?

Bai, ikusten dut garapena egon dela. Prozesu honetan boterea eta dinamizatzeko



zein parte hartzeko aukera izan duten hainbat pertsonatan garapen handia ikusi dut feminismoarekiko eta proposamen hauekiko, irekitasuna. Bestalde, Foro Sozialean genero-lantalde bat dago, kristoren lana egiten ari dena, *Nik sinisten dizut* kanpaina horren adibide. Orain dela zortzi urte ez zait iruditzen Euskal Herrian, mugimendu feministan, hainbeste feminista geundenik horretaz arduratuta, eta orain iruditzen zait baietz. Garapen handia egon da, eta positiboki baloratzen dut.

Zuen lanari esker ezagutu nituen Guatemalako feminista komunitarioak eta osatze feministari buruzko proposamena. Zer da hori?

Abya Yalako [Panama eta Kolonbia-ko kuna herriak, Kristobal Kolon iritsi aurretik, Amerikari eman zion izena] feminista komunitarioek landu duten proposamena da. Kolonizazioaren ondorioz, herri indigenek albo batera utzi zituzten ordura arteko beren mundu

ikuskerak, eta horrek eragin die gorputzean, sinesmenetan, espiritualitatean... Baina indarkeria ez dator soilik "Ameriketako konkista" deitu zaion horretatik, lehenagotik ere badator, eta feminista hauek beren buruari galdetu diote, adibidez, ea beren herri indigenetan patriarkatua nola islatzen zen, eta horrek zer eragin duen beren gorputzetan. Hori guztia aintzat hartuta, feminista komunitarioak ari dira beren gorputzen dekolonizazio-prozesua egiten: mundua nola ikusten duten, nola ikusi nahi duten, beren gorputzekiko zer harreman duten, nolakoa nahi duten izatea... Hori guztia berreskuratzen eta berrizendatzen ari dira.

Nola heldu diozue zuek proposamen horri?

Gure ildo estrategikoetako bat da osatze feminista. Alde batetik, kontzientzia hartu dugu, eta gure buruari galdetu diegu ea Euskal Herriko historia politikoak nola eragin digun, guri, Bilgune Feministako militanteoi. Gauza askok eragiten digute: gatazka politiko armatuak, patriarkatuaren tresna den emakumeen aurkako indarkeriak, langile izateak, egoera prekarioek, lesbiana izateak... Horietaz guztietaz osatu nahi dugu, kolektiboan. Baina, horrez gainera, gure buruari galdetzen diegu: nola eragin digu Euskal Herrian gertatu zen

sorgin ehizak? Emakumeen gorputzak erre ziren. Euskaraz bizi zen komunitate horretan ez geneukan libururik, eta erre zituzten gure gorputzak hain zuzen ere ez zegoelako libururik, eta gure gorputzetan zegoelako jakinduria, gure gorputzetan zeudelako erresistentziak... Eta zer irakurketa egiten dugu horretaz guztiaz? Nola eragin digu? Nola eragin zuen XVI. mendean modernitatea ezartzeak? Modernitate garaian, hemen planteatu zen estatu bat eta bakarra, pentsatzeko modu bat eta bakarra, hizkuntza hegemoniko bat eta bakarra, eta gure herrian kolonizatzaileak izan zirenak, ondoren, edo garai beretsuan, Abya Yalara joan ziren, eta gaur egun, oraindik ere, subjektu horiek dira gure herrian emakumeen gorputzak zapaltzen ari direnak, besteak beste.

Baina aldi berean, mendealdean bizi gara.

Bai. European bizi gara, Euskal Herrian bizi gara eta pribilegio-posizio bat dugu. Gure analisiak joan-etorria egin behar du, joana iraganera –bizi izan ditugun zapalkuntza horiek guztiak izendatzera eta horien jabe izatera–, baina etorkizunera ere bai. Gaur egun, euskal herritar bezala, neokolonizazio prozesu batzuen parte gara: esate baterako, Iberdrola zer ari da egiten Brasilen, eta guk nola egiten diegu aurre horri? Horregatik, feminismoak oso lotuta egon behar du eraldaketa sozial, politiko eta ekonomiko bati, guk hala sentitzen dugu eta hala bizi dugu. Neoliberalismoa egiten ari den gauzetan, adibidez mugak itolarri bihurtzeko erabaki horietan, posizio politikoa hartu behar dugu.

Hortaz, feminismoaren beste lema bati helduta, bizitza jarri behar dugu erdigunean?

Bizitza erdigunean jartzeak ez du esan nahi bizitza letra larriz aldarrikatzea, esan nahi du bizitzaren aurrean posizio politiko bat hartu behar dugula, eta horrek esan nahi du beharbada ezin dugula egunero jan ez dakit nondik ekarritako piña edo platanoa. Eguneroko erabaki txikiei eman behar diegu dau-

katen dimentsio politikoa, daukan garrantzia, zeren bestela ezingo dugu Euskal Herria eraldatu feminismotik.

“Mugimendu feminista espainola dela? Ez nago batere ados. Areago, mugimendu feministan egiten ari garen lanketa euskara dela-eta ez dira ari egiten beste mugimenduetan

Behar ditugu estrategia orokorrak, jakina, baina behar dugu egunerokoaren kontzientzia hartu, eta behar ditugu eraiki hurbileko afektibitateak. Egunerokoan gurutzatu behar dugu askotariko emakumeok eta herritarrok, eta ez baldin bagara gurutzatzen, ez baldin bagara parez pare begiratzen eta errekonozitzen, nekez sortuko ditugu aliantzak. Uste dut hori dela ezkerak daukan erronketako bat. Ezin dugu hitz egin aliantza handiez, egunerokotasunean ogia erostera joaten banaiz eta nire ondoan dagoen iritsi berriari begietara begiratzen ez badiot.

Askotan, begietara begiratzeak ispilu egiten dizu, eta zure pribilegioaz ohartarazten zaitu. Baina dialogorako aukera sortzen denean, zuk ere aukera duzu momentu batean sentitzen duzun zapal-



Azken hitza: HAMAR URTEAN, HAMAIIKA MUGARRI

“Elkarrizketan aipatu ditugu batzuk, baina Iraolari galdetu diot ea zer nabarmenduko lukeen hamar urte hauen ostean, eta labur erantzuteko eskatu. Besteak beste, hauek aipatu ditu: mugimendu feministaren barruan, desadostasunak desadostasun, aliantza politikoak eta afektiboak egiteko borondatea eta aldarte ona egon dela; Aieteko bake konferentziak aukera berri bat ireki duela Euskal Herriarentzat eta bertako feminismoarentzat; ahalegin handia egin dela euskaratik eta euskaraz feminismoa teorizatzeke eta praktikan jartzeko; feminismoa profesionalizatu eta instituzionalizatu dela; militatzeko moduak aldatu direla; sexu-identitateak politizatzeke eta gorputzak politizatzeke lan handia egin dela –lesbianismoa, transexualitatea...– eta, Emakumeen Mundu Martxari esker, apustu handi bat egin dela, Euskal Herriko feministen posizioak ezberdinak izan arren, elkarrekin lan egiteko”.

kuntza, adibidez hizkuntza zapalkuntza, horren berri emateko eta enpatia ariketari bide emateko.

Hizkuntza aipatu duzu. Feminismoa euskaratik eta euskaraz sortzea da zuen beste erronketako bat.

Martxoaren 8an interpelatu gintuzten, mugimendu feminista espainola zela eta martxoaren 8ko Bilboko manifa espainola izan zela. Mugimendu feminista espainola dela? Horrekin ez nago batere ados, eta are gehiago esango dut: hizkuntzaren inguruan, eta euskara hizkuntza ez hegemonikoa den heinean, María Reimóndezek esaten duen bezala, mugimendu feministan egiten ari garen lanketa ez da ari egiten beste ezein mugimendutan, ez erabakitzeke eskubidearen aldeko mugimenduan ez beste edozeinetan. Baina zer gertatzen da? Milaka pertsona biltzen garenean, gure herrietako errealtate linguistikoa agerian jartzen da. Hemen ez da salatu behar gure manifestazioa espainola izan dela, salatu behar da herri honetan politika neoliberal bat dagoela hizkuntzarekin, eta aldarrikatu behar ditugu euskara dohainik ikasteko eskubidea, programak, aukerak, euskalduntze masiboa: hori da aldarrikatu behar duguna, eta ez mugimendu feminista salatu espainola delako.

Feminismoa boladan omen dabilen honetan, Euskal Herriko mugimen-

du feministak lortu al du mintzakide politiko bihurtzea?

Greba feministei esker, lehen feminismoa arrotz sentitzen zuten emakumeek gaur egun ez dute hain arrotz, eta kalera ateratzeko gogoia izan dute, beraien ezinegon eta injustizia-egoerei aurre egiteko. Beren lekua topatu dute mobilizazioetan. Baina mintzakidetza politikora salto handia dago. Gaur egun ez dugu lortu alderdi politiko batek edo sindikatu batek daukan gaitasuna mintzakidetza politikorako, eta are gehiago esango nuke, mugimenduarien egitura ez dago horri erantzuteko prest momentu honetan. Nolanahi ere, oso erraza da martxoaren 8an kalera ateratzea, baina gero errora jotzen baduzu, hor ikusten dira diferentziak. Euskal Herriko mugimendu feministak erroko aldaketak eta proposamenak planteatzen ditu, eta gaur egun instituzioetatik borondate hori ez dago, zeren gaur egun gure herrian instituzio askoren ikuspegia eskuineko ikuspegia da, eta manifestazioarekin bat egin dezakete, baina, gero, adibidez, ez dago barneko etxeko langileentzako arautegi bat, erregimen berezitatik kanpo, nahiz eta behin eta berririo eskatu dugun. Ez dago eskakizun erreala planteatzeko borondaterik.

Azaroaren hasieran egingo dira Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak. Lema: “Salda badago”.

Jardunaldi hauen helburu nagusia da mugimendu feminista indartuta ateratzea. Momentu honetan, emakume askok feminismoa bere egin dute, feminista gisa jarduten ari dira hainbat eremutan, baina militantzia aldatu egin da. Orain dela hamar urte baino militantzia likidoagoak bizi ditugu, eta testuinguru horretan, mobilizazioan jende asko gaude. Baina zer egitura, zer hezurdura du mugimenduak? Nik uste dut jardunaldi hauek behar-beharrezkoak direla, mugimenduarien egitura indartzeko eta militantzia osasuntsu eta bizigarri baten bidean urratsak emateko. Nik uste helburu nagusia dela agenda partekatua lortzea, desadostasunetik harago, horien jakitun izanda, jardunaldiak amaitu eta esatea: Euskal Herriko feministok bost helburu hauek dauzkagu eta bakoitza bere eremutan prozesu hauek bultzatzen arituko gara, eta eztabaida nagusi hauek dauzkagu. Hori mundiala izango litzateke. ●



Iritziak

Arnas luzez



ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

Zer da hauteskundeetan emaitza onak lortzea? Ideologikoki, *statu quo*-arekin bat datozen alderdiek botere instituzionala eskuratzea izan ohi dute xede, eta gainera analisi politiko guztiak horretara makurtzea hobesten dute. Hauteskundeetan saritzen da ondo eginda dagoena. Eta kito. Hori ez litzateke onartu beharko; hala ere, erakundeak helburu politiko zabalago baten baitan kokatzen dituzte (ezkerreko) proposamen apurtzaileak dituzten alderdiek. Botere instituzionala hanka bat gehiago izan daiteke, funtsezkoa agian, baina jendartearen eraldaketan sakontzeko tresna gisa ulertuta betiere. Zertarako bestela?

Nafarroan (Nafarroa Garaia) esaterako, zaila da esatea Geroa Bai eta EH Bilduren emaitzak ez direla onak izan. Ez dira, alabaina, lau gobernuari euste-ko adinakoak. Aldaketa egiturazko zenbait faktore soziologikok eragin zuten, baina baita uneari eta abaguneari lotutako beste askok ere. Gogoratu behar dugu zenbakiak eta eserleku banaketa doi-doi geratu zirela boto gutxi batzuk gorabehera. Hein batean behintzat, gobernu aurrerakoia osatzea Podemosen ingurumariari esker izan zen posible, eta beste horrenbeste gertatu da orain kontrara, boto horiek lau gobernuaren eremutik at geratu eta gehienbat PSNra joan direnean. Edonola ere, iragun hurbileko minak alde batera utzi

Gaitz erdi litzateke PSNk gobernatzea eta ez izatea UPN edo Navarra Sumaren gobernu bat berriz ere. Batetik, modu bakarria delako hamarkadatan eraikitako botere sare klientelarra desegiten jarraitzeko eta muturreko bazterkeria gainditzeko

eta hotzean begiratuta, gaitz erdi litzateke PSNk gobernatzea eta UPN edo Navarra Sumaren gobernu bat berriz ere ez izatea. Batetik, modu bakarria delako hamarkadatan eraikitako botere sare klientelarra desegiten jarraitzeko eta muturreko bazterkeria gainditzeko. Bestetik, PSNrengan aldaketa bultzatuko lukeelako, gutxika EAEn duen posizioa ekarrita. Urtetan erregimenaren eusle eta parte izatetik beste jarre- ra batzuk hartzera eramango luke. Ez dago garbi Madriletik rol aldaketa hori ahalbidetuko duten ala ez: Nafarroa estatua auzi da, atzo, gaur eta bihar. Batera zein bestera, aldaketa ahalbidetu zuten egiturazko joera horiek indartzen jarraitzea da erronka, eta, bidenabar, desmotibazioa eta frustrazio desmo-


bilizatzailea ekiditea. Hauteskundeetan aurretik posible zen eta hala da oraindik ere.

EAEn EAJk goranzko joerari eusten dio. EAJren marka-balio nagusi bihurtu dira moderazioa eta egonkortasuna, eta bertan hartu du aterpe tradizionala eskuma espainolistara zihoan boto askok. Baina ez multzo horrek bakarrik, erdiguneko kokapenak alde guztietatik bozak harrapatzeko beta ematen baitio, esker/eskuin, aberri/*patria*. Herri ikuspegi batetik, zer nahi duzue esatea, hobe Alderdi Popularrak ordezkaritza politikoa galtzea eta epe luzera identitateen bilbaduran ere inpaktua izatea. Egia da, EAJ dela hauteskunde-zioen arabera mugitzen den alderdi horietako bat, eta sektore espainolista horretatik gizontzeak posizio subiranistetatik urrundu dezakeela. Halaber, PSerekin duen akordioa da aipatutako botere kuota hori bermatzen diona. Bestalde, EH Bilduren emaitzak ere kuantitatiboki oso onak dira. Oreka zailagoa du, ordea, hauteskundeek bultzatzen duten moderazio antzueren amaraunetik ihes egiteko eta aldi berean bere eremua handitzen jarraitzeko. Akordioen joan ere aukera berriak ustiatu beharko ditu, betiere, helburu zabalago baten baitan. Izan ere, badirudi gauzak ez direla ezer aldatzen, baina aldatu aldatzen dira, eta, batez ere, aldatzeko aukera dago. Horri eutsi beharko. ●

Escape games direla eta



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IDAZLEA



PAULA ESTEVEZ

Beharbada ohartua zara horretaz, irakurle, gero eta gehiago antolatzen dira delako *Escape Game* edo ihes jokoak, munduko hiri handietan ez ezik, txikiagoetan ere bai, hala nola Baionan, Urruñan, Irunen. Ihes joko horiek dira omen *Escape the room* motako bideo-jokoen aldaera fisikoa. Printzipioa da gela batean preso dauden jokalariek aterabidea aurki dezaten, estrategia logiko egokia atzeman. Batzuetan, helburua izaten da misterio bat argitzea, edo krimen baten hobenduna agerraraztea. Jokalariek ordu bakarra dute horrendako –joko gidariaren ahotsak jokoan zehar oroitarazten dioten bezala–. Taldeka egiten den jokoa da, familian edo lagunartean. Zehaztu behar da ere joko bakoitzak unibertso bat proposatzen duela, arabera apainketa eta asmakariekin. Kasu batzuetan, gidoi berezia jarraitzen duen istorioa ere badago. Joko berrienetan gainera, aktoreak daude giroaren sinesgarritasuna bermatzeko, zonbi, mamu, pirata edo terroristaz mozorroturik. Ihes jokoak agertu dira 2008. urtetik harat, lehenik Japonian eta Asian, ondotik European eta Amerikako Estatu Batuetan.

Ezagutzen ditut ihes joko horiez amorratuak diren pertsonak, ene in-

guru hurbilean. Xerkatzen dutena da enigmak biluztearen plazera eta sentsazio bortitzak fisikoki bizitzea –erran beharrekoa da gero eta *escape game* gehiagok mundu izugarrian sarrarazten dituela bezeroak, bihotza etengabeko pil-pilean atxikitzen dutenetan–. Presuna horiendako, denbora-pasa atsegina baizik ez da, ordenagailu edo tauleteren bidez egiten dituzten joko elektronikoek eskaintzen dietenaren luzapena. Ni aski uzkur nago fenomeno berri horren aitzinean, hain segur ez dudalako tirri handirik berrikuntza elektronikoendako eta horien bilakaerendako, batez ere aisialdi arloan.

Bistan dena norberari gisa horretako jokoetan atsegin hartzeko eskubidea ikusten diodala. Bestalde, klaseetan ere, gomendatzen digute horrelako jokoak antolatzea ikasleekin: kasu horretan, biziki interesgarri iruditzen zait adibidez haurrek gai batez ikasitakoa erabil dezaten jokoa eraikitzeke; kurtso baten bilduma egiteko modu jostagarria izan daiteke. Baina halere niri galdera edo kezka batzuk sortzen dizkit joko horien garapenak.

Iruditzen zait lehenik bideo-jokoak fisikoki moldatuz, hots unibertso birtual antzuak hedatuz, laguntzen dela

errealitatetik urruntzen, eta hori ez zait egokia iruditzen: errealitatearen funtsa ulertzeko gogoa, haren bortizkeria ezartzeko beharra eta haren hobetzeko xedea hain premiatsuak zaizkit non zentzugabekeriatzat dudan errealitate artifizialean denbora higitzeko gustua. Beste manera batez errateko, *escape game* horiek errealitatetik eskapatzeko tresna gisa ikusten ditut eta batere ez artea edo literatura bezalaxe, errealitatea harpatzen saiatzeko mediotzat. Gainera, ihes joko horiek gehienetan iragankorrak dira: jendeak epe jakin batez erabili ondotik, tokiz aldatzen dute antolatzaileek, edo desegiten. Ez diet beraz zinezko baliorik ikusten.

Bigarrenik, kezkatzen nau ikusteak modan izateko Euskal Herriko gune historiko batzuetan ihes jokoak antolatzen direla, hala nola Urruñako Urtubi Jauregian. Menturaz aurreiritziz ari naiz, *Escape from the château* deitzen den jokoa ez dudalako frogatu, baina horren aurkezpenetik erran nezake animazioak ez duela helburu pedagogikorik (tokiko historia eta ondarea ezagutaraztea izan zitekeen), gisa horretako jokozaleen asebetetzeko eta gunearen promozio turistikoa soilik baizik. ●



ENEKO OLASAGASTI
ZUZENDARIA
ETA GIDOIGILEA

Erakusleiho versus Lantegi

Edo idatz nezakeen ere *Publiko vs Privat*, *Amateur vs Profesional*. Etaurretik joan bedi ez dudala ezer ere erakusleiho, lantegi, publiko, pribatu, amateur edo profesionalen aurka. Are gehiago, uste dut denak direla beharrezko modazko hitzak, *Ekosistema Kulturalak* deritzon horretan. Ekosistema hitzak nolabaiteko oreka dagoela adierazten du. Eta munduko ekosistema hankaz gora dagoela dirudien honetan zer esanik ez, Kulturala abizena ipiniz gero. Eta Lurrekoaren suntsiketaren kontra borrokatzen dutenen antzera ekologista kultural temati bihurtzekotan nagoela uste dut, errepikatzen naizela alegia.

Donostiako Olatu Talkak bereak egin duela dirudi, hamar urte eta gero. Eta egia esaten badut ez dit min handirik ematen. Ez hainbat donostiarrek egingako lan boluntarioarengatik, baizik eta horretan bakarrik oinarritu izan delako, profesional bakan batzuen laguntzarekin. Horrelako muntaia erraldoiaren antolaketa ordaindu beharko balitz ez zelako egingo. Doako kultura, berriro, dohainik egina. Bestelako erakustaldiak, Olentzero, Errege Kabalkada, berdin gertatzen da. Bilbon antzerki konpainien esku uzten dituzte.

Eta nahita aipatu dut Bilbo. Izugarriko inbidia sentitu dudalako orain egun gutxi Arriaga Antzokiak hurrengo urteko bere programazioa aurkeztu duenean. Zeren konpainia pribatuen antzezpenak erakusteaz gain euren ekoizpen propioak toki handia hartzen duelako. Eta tokia hartzen badu egin egiten delako da. Bertako antzezle eta zuzendariekin, talde bateko izan zein besteko, aldian batzuk aldian besteak. Eta horrek lana emateaz gain giroa sortzen baitu, kultur bizitza. Eta modu pribatuan ekoiztu ezin diren lanak aurrera ateratzeko aukera sortu. Donostian ezin du ez delako ezer ekoizten. Eta Gasteizen berdin. Iruñean ez ordea. Gayarre Antzokiak ekoizpen propioak egin izan ditu. Bilbo eta Iruñea lantegi eta erakusleiho dira eta Donostia eta Gasteiz erakusleiho hutsak. Hau izan da betidanik Donostiari egotzi zaiona eta ez du ematen aldatzeko trazarik duenik. Dirua kostatuko lukeela horrek? Noski. Baina baita hondartzak garbi edukitzeak, sorosleei ordaintzeak... Su artifizialak debaldekoak al dira, bada? Erakusleiho izatera kondenaturik dago Donostia? Kultura sortzea berdin zaigu, nahikoa dugu pribatuan sortzen dena erakustearekin. Jakina, sortzen ez dena ezin erakutsi. ●



ITZIAR BARDAJI
GOIKOETXEA
IRAKASLEA

Kontsumoaren egitura fraktala

Bizitzak itxura fraktala izaten du maiz: egitura baten barruan egitura berdina errepikatzen da eskala txikiagoan.

Lan-kontsumo eta lan-zaintza "kontsumo gutxiago" zikloak astero betetzen dira. Lan hori soldataren truke soilik egiten dela azaltzen duten arrazoiek eta zaintzaren zati inposatuak gure gorputz eta bizipozean eragiten duten higadura jasateko ihespuntu ezinbestekoa da kontsumoa. Gailu elektronikoak edo mendiko arropa *fancy*-a erosi, afari erromantikoa jatetxean edota parranda. Antidepresibo, kreditu txartel, alkohol eta kokainari engantxatutako gizarte eroa.

Aldi berean, esklabotasun modernoaren presio balbula horiek zikloaren eragile dira, kontsumo hori mantentzeko beharrrak eramaten baigaitu astelehenean iratzargailuari obeditzera.

Urrunagotik begiratzuz gero, egitura berdina ezarri diogu urteari. Hipoteka eta gaupasarekin batera, turismoa da 40 orduz loteria irabaziz gero egingo ez genituzkeen jarduerak egitera eramaten gaituen tranpa. Tranpa diot, gutxienez urtean hirutan euskal herritik irtetearen behar hori ez delako ere oso hautu librea.

Hau noski, klase ez hain baxuko nati-bo zurien erretratua. ●

Irisarritik Euskal Herrira zuzenean



PAULINE GUELLE
ZUZENBIDE PUBLIKOAN
DOKTOREGAIA ETA IRAKASLEA

Ekaina hasi eta badakigu festibala heldu zaigula, muntaketan eta hiru egunetan parte hartzeko irrikitan gaude. Batzuentzat ikasketak fini eta uda hasi; besteentzat lana utzi eta uda bizi. Festibalak urteko zikloaren hasiera edo bukaera markatzen du. Hamar hilabetez taldeak prestatu duen emaitza, festibalarien besta, elkartzeko toki gakoa, gazteriaren gogoeta lekua eta ausartze momentua; ahanzi gabe galdera nagusia: “Zer prestatu digute aurtengo?”.

Galde horren giblean gauza ugari kukutzen dira. Dinamikaren arranguraz gain, gazteek nolako jendartea gogoko duten deskubritzeko asmoz gaude. Kapitalismoari aurre egiteko zer tresna eta zer pentsaketa nagusitzen diren, alternatibak non ikusten dituzten, zein diren haien erreferentziak, zer gai jorratu nahi duten, zer musika eta ikusgarri mota eskaintzen duten, zer prezio politika aplikatzen duten, laguntzaileen eredu nola antolatzen duten, feminismoa nondik jorratzen den, herriarekin eta herritarrekin zer harreman sortu diren, laborantzari zer-nolako tokia gordetzen

Euskal Herria Zuzenean
sortu zen momentutik
argi zen ‘festibala’ tresna
gisa baliatuko zela
bai gazteriari elkartzeko
leku bat eskaintzeko,
baita ere kanpokoek
herria ezagutzeko
parada ukateko

dioten, beste eragileei nolako harrera egiten dieten eta abar. Hots, Euskal Herriko gazte multzo baten proiektzio filma dugu festibala.

Anitzetan, Donostiako Piratek antolatzen duten besta eredutik hurbil ikusi da. Besta alternatiboaren etiketari jarraituz aritu diren elkarte, gaztetxe, kolektibo edo taldeekin alderatuz orokorrean. Dinamikaren irakurketaren aldetik, galdera berdinak egiten ziren. Konparazione, gazteen antolatze gaitasunarena.

Maiz, beste besta eredu bati lotutako ekimenek laguntzen eta indartzen gintuztelako jakiteko gazteriaren puntu azkarrak zertan ziren; neurgailua “positiboan” ezarritz.

Bestalde, Euskal Herria Zuzenean (EHZ) sortu zen momentutik argi zen “festibala” tresna gisa baliatuko zela bai gazteriari elkartzeko leku bat eskaintzeko, baita ere kanpokoek herria ezagutzeko parada ukateko. Ipar Euskal Herrian, Patxa mugimendutik Piztu elkarteak sortu zuelarik proiektua (1996) Baionan errotutako eragile nagusi horrek festa artifizialaren hautua egin zuen. Existitzen ez zen momentu bat sortu zuten (Ipar) Euskal Herriko barnealdean borrokak argitan uzteko eta elikatzeko. Borroka-aren kultura berri bat sortzeko asmoarekin irudikatzen zen leku paregabea; gure kultura elikatuz, indartuz, handituz eta birsortuz.

“Artifizialki” sortutakoak irauteko energia gose izanki, bizi zikloak behar ditu. Aurtan ere, laguntzaile kateari katebegi bat gehituko zaio hogeita hiru urteko ziklo luzeari gogoz segituz. Iturri zaharretik ur berria beti! ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hemani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Bizi nahi duen herria!

Jende gehiagori
ahotsa emateko,
lagun gehiagorengana
heltzeko eta
eragiten jarraitzeko
EGIN ARGIAKOA!

Indiako nekazal krisiaren alargunak

Dalit edo "ukiezin", laborari, emakume, eta gainera alargun. Indiar jendarteko hierarkia guztien azpi-azpiko mailatan kokatuta daude, eta jasaten duten zapalkuntza bazterreko posizio anizkun horren neurrikoa da.

IGONE MARIEZKURRENA IRANTZU PASTOR

Behinola lurjabeak izan ginen. Montzoia irailean iristen zen hona, eta azarora arte egiten zuen euria. Ur hari esker urtean hiru arroz uzta jasotzen genituen. Gure aitona-amonon garaian ere hala izaten zen". Janagi Natarajanek (Puvana-giri, 1959) begiak nostalgiaz bustirik oroitzen ditu garai oparoagoak. "Baina 90eko hamarkada amaieran aldaketa nabaritzen hasi ginen, eta orduz geroztik egoerak okerrera egin du: euriteak azaroan bakarrik izaten ditugu, urriagoak dira, eta haize zakarragoz etortzen dira gainera". India hego-ekialdeko Tamil Nadu estatuko nekazariak arroz uzta bakarria dute gaur egun; dilistak eta garbantzuak ereiten hasi dira bigarren uzta baten bila baina, maiz, haizeteek soroak hondatzen dituzte. Selva Nayagi (Chinna Koppiyam, 1979) jurnalaria da, bere gurasoak bezalaxe: "Ez ginen sekula aberatsak izan, baina eguraldia ziklikoa zenean soldata bermatua genuen. Orain ziurgabetasunean bizi gara". Eskuak zabalik dituela ari zaigu hizketan, kailuz beteriko ahurrek lana erregutuko balute bezala.

1.400 kilometro iparralderago, India erdi-mendebaldean, Maharastra estatuan, paisaia are idorrigo ageri da. "Zekale-lurra da hau -argitu digu Aasha Ghodakek (Bhalasoari, 1972)-, garia hazten dugu". Bi hektareako eremua du; eta bina

zezen eta behi, lanerako eta esnetarako. "Ezkondutik berritan buru-aski ginen: ogia egiteko irina ekoizten genuen, barazkiak, abereentzako belarra, esnea... eta soberakinak trukatzeko gainerako guztia eskuratzen genuen", dio harrotasun kondarrez. Garaian, hilabete hezeetan, errekaetako landak zeharkatzen zituzten; 2019ko montzoia, ordea, ez du kasik euririk utzi herrialdearen bihotzean eta ur-maila 150 metrora jaitsi da, lur azpian.

Indiako Meteorologia Departamentuak 2018ko urrian plazaratu zuen txosten baten arabera, azpikontinenteko nekazal lurren %68 lehorte arriskuan daude; horietatik %33 lehorte kronikoko arriskuan.

Bien bitartean, Indiako Nekazaritza eta Nekazarien Ongizaterako Ministerioak 2016an onartutako *Manual for Drought Management* (Lehortearen Kudeaketarako Gidaliburua) dokumentuan jasotako neurriak indarrean sartu dira, Gobernuaren beraren hitzetan, "orain arteko estimazio-sistema tradizionalak alboratuz, lehortearen

ebaluaketa zehatzagoa egin ahal izateko indize eta parametro zientifiko berriak" ezartzeko. Baina herrialdeko nekazari kooperatiba eta elkarteek salatzen dutenez, hedatzen ari den sarraskiaren onarpena mugatzea da Narendra Modi lehen ministroaren asmo bakarra: lehorteak zonalde bat kolpatu duela aitortu eta horren biktima diren nekazari familiei dagozkien diru-laguntzak (*Draught-hit Remuneration*) bideratzeko

bete beharreko baldintzen irizpidea zorrotzu eta gogortzea, alegia. Maharastra estatua, esate baterako, lehorte kronikoko arriskuan dago. Bertako Gobernuak Paisewari izenaz ezagutzen den sistema baliatu ohi zuen: eremu jakin batean prezipitazio defizita baldin bazegoen eta urte horretako uzta aurreko 10 urteetako

batez bestekoa baino %50 urriagoa bazen, lehorte egoera deklaritzen zuen. Maharastrako laborariak salatu dutenez, Paisewari sistemak halakotzat joko lituzkeen 9.000 herriko familiak inongo laguntzarik gabe utzi zituzte nekazal politika eta irizpide berriek.

“Ezkondutik berritan buru-aski ginen: ogia egiteko irina ekoizten genuen, barazkiak, abereentzako belarra, esnea... eta soberakinak trukatzeko gainerako guztia eskuratzen genuen”

Aasha Ghodake



Aasha Ghodakeren senarrak, zorrek itota,
bere buruaz beste egin zuen urte hasieran.



Herrikideek bizkar ematen diote Santhana Maryri, Indiako sineskeriek zorte txarraren eramaletzat dituztelako alargunak.

IRAULTZA BERDEAREN ITZALAK

Aldaketa klimatikoa ez da, haatik, nekazal krisi honen kausa bakarra. Mahesh Markad (Madhi, 1990) nekazaritza estentsiboan espezialdutako ingeniariak sakon ikertu du 60ko hamarkadaz geroztiko laborantza moldeen transformazioak eta eredu intentsibistarenzko joerak lurzoruan nahiz nekazari familien baitan eragindako inpaktua: "Inportazioekiko eta donazioekiko menpekotasunak, populazioaren gorakadak eta 1965-1966 urteetako lehorte latzek Indiako Iraultza Berdea eta honen erreformak aktibatu zituzten. Jomuga herrialdearen zekale beharra asetzea zen, elikadura-autosufizientziara hurbiltzea. Errendimendu altuko eta erresistentzia handiko gari aldaera arrotzak lehenik, eta halako arroz aleak gero, ekartzea izan zen garaiko gobernuaren aurreneko neurria, eta ongarri kimikoen erabilera sustatzea".

Eraldaketa lehenean, ekoizpenak kolpean egin zuen gora -30 urtetan hirukoiztu egingo zen-, gero eta familia gehiago eredu berrira erakarrit. Albo batera utzi zituzten hain errentagarriak ez ziren beste labore batzuk, eta pestizidak isurtzen hasi ziren ongarri kimikoek ahuldutako landareak babesteko. "Baina indiar nekazari gehienak familia-ekono-

mian zaildutako lurjabe txikiak ziren. Ez zuten balantze handirik egiteko ohitura eta gaitasunik, ezta epe ertain/luzerako aurreikuspenen kulturarik ere; hinduismoaren esentziarekin talka egiten baitu horrek. Berehalako oparotasunak itsututa jokatu zuten, eta eskaintza altuak nekazal produktuen prezioa jaitsiarazi zuen. Arian-arian, produktu kimikoen erabilerak haziak degradatu, lurzorua antzutu eta honen ura xurgatzeko gaitasuna murriztu du, nekazariak halako gehiago erabili behar izatera kondenatuz eta prezioak puztuz.

"Landak orain gogorregiak dira bazkarik gabe geratu diren zezenek galdatzeko". Gorpil zoro honek, horrenbestez, ekoizpena garestitu eta irabaziak murriztu ditu azken bi-hiru hamarkadetan.

Lurra lantzen jarraitu ahal izateko, maileguak eskatu beste aterabiderik ez dute aurkitu. Baina banketxeek ez dizkiete aitortzen. Sektore ezegonkorra delako, alde batetik. Eta bestetik, beharbada batez ere, nekazariak *shudrak* direlako, kasta baxueneko herritarrak; edota *dalit*

edo "ukiezinak" beste kasu batzuetan, are maila baxuagoak alegia, estratifikaziotik kanpo daudenak. "1950eko Konstituzioak kastagatik diskriminazioa abolitu zuen arren, mailaketak bi-zi-bizi dirau jendartean", gogorazi digu Mahesh Markadek.

"Mailegu-emaile pribatu

ilegalengana jotzen dute orduan -jarraitu du-.

Mafia-egitura duten taldeak dira. Dirua kudeatu eta erabakiak hartzen dituen buroak hainbat mertzenario ditu bere esanetara, nekazari zordunei estortsio egin eta hauek etengabe mehatxatzeaz arduratzen direnak". Bat-bateko

dirua ahalbidetzen diete laborari etsituei, baina %20-30 edota %40ko interesak eskatzen dituzte, banketxeek baino bi edo hiru bider handiagoak.

DEPRESIOAK ETA SUIZIDIOAK

"Hiru akreko soroak arroza emateari utzi zionean, senarrak 200.000 rupiako (2.500 euro) mailegua eskatu zion emaile pribatu bati", azaldu digu Janagi Natarajanek. "2000 urtean hil zen depresioak jota.

“
Santhana Maryren
senarra gazterik
alkoholizatu zen;
“hemengo beste mutil
gehienak bezala”
dio burua makurtuz

Ez zen zorra kitatzeko gai izan eta ezin izan zion estresari eutsi; jateari utzi zion, hilabeteak eman zituen etxean itxita, ahul. Behinola lurjabeak izan ginen, baina orain jornalaria naiz, mailegu-emaileek lurra konfiskatu zidatelako senarrak gu utzi bezain pronto". Genero rola aski banatuta eta sustraituta daude Indian. Gizonek, familia-buru eta babesle gisa, etxeko beharrak diruz asetzeko eginkizuna dute, besteak beste. Hala, jendarteak eta familiak eurengandik espero duena bete nahi eta ezinean, nekazari askok euren gizontasuna frustratuta ikusten dute. Tamil Nadu estatuan, etheen %12k emakume bat dute buru, India osoko ehunekorik altuena da; etsipenean, suizidioan edota ihesean aterabidea aurkitu zuten gizonen alargunak eta abandonatutako emazteak dira.

Maharashtra estatuko datuak are larriagoak dira: 2009 eta 2018 bitarte, 25.000tik gora nekazarik egin zuten bere buruaz beste, *National Crime Records Bureau* (NCRB) gobernu agentziaren arabera. "Senarrak 1990ean eskatu zuen aurreneko diru kopurua: 10.000 rupia (124 euro) –gogoratzen du Aasha Ghodakek-. Atzerapen bakoitzeko, interesak goitzen zizkiguten, eta senarrak mailegu berriak eskatu behar izan zituen aurrekoak ordaintzeko. Egoera eroa eta itogarria zen. Aldiro-alديو bere bila etortzen ziren etxera, eta kotxean sartuta eramaten zuten, ez dakit nora, ez zidan inoiz kontatu. Mehatxatzen zutela, hori bai esaten zidan: giltzapetuko zutela, eta etxekooi min egingo zigutela". Iragan urtarilaren 29an, Aasha Ghodakeren seme gazteenak aitaren hilotza aurkitu zuen, goizean-goiz, abereentzako estalpean. Autopsiak argitu zuenez, bere burua pozoinduz zuen ongari kimikoak irentsita. "Urteetako borroka galdu dugula sentitzen dut. Kezka nirekin gehiago partekatu izan balitu, agian, ez luke hartu zuen erabakia hartu izango –dio Ghodakek negar-zotinka-. Gure lau seme-alabei ikasketak ematearekin amesten genuen, baina orain lanean hasi beharko dute hirian, nekazaritzaz ezer gutxi baitakite, eta lur pusketak honek ez baitu gehiago emango. Ni etxean geratuko naiz: abereez, otorduez, arropak garbitzeaz arduratuko naiz". Rol

banaketa berberak familien erdigunean, sustengatzaile eta kohesiogile, kokatzen ditu amak/emazteak. Eta, hain justu horrexegatik, etsipena, suizidioa eta ihesa ez dira emakume indiar batek bere buruari baimentzen ahal dizkion aukerak.

EMIGRAZIOA ETA MENPEKOTASUNAK

Hirietan aukerak ugariak direlakoan, uste ustelak milaka nekazari familia lekualdatu ditu, bereziki 2000 urteaz geroztik. Behe-auzoak bete eta zabaldu dituzte. "Aurrezki apurrak hartuta mugitzen dira –azaldu digu Mahes Markadek-, eta kastaren araberrako lanak egiten dituzte. Gehien-gehienak *dalit* edo ukaezinak dira, beraz... senar-emazteak estoldak garbitzen, plastikoak biltzen edota zama-lari aritzen dira. Alaba nagusia txabolana geratu ohi da anaia-arreba gazteagoak zaintzen, eta seme zaharrena dirua eskatzera ateratzen dira". Eskolatzerik gabe, kaleetan hazten dira, kaleak hezten ditu, eta mota guztietako trafikatzailen biktimak izaten dira. "Erraza da umeak Indiako hiri handietan betirako desagertzea", dio Markadek.

"Hamazazpi urte nituelarik ezkondu nintzen. Jornalarion lana izugarri irregularrak bilakatua zen ordurako –oroitzen du

Selva Nayagik-. Euri-bermerik eta ureztapen sistemarik gabe, lur-jabeek gure soldatak ordaintzeko ahalmena galdu zuten. Senarrak Keralara mugitzea erabaki zuen –dio-, basoetan zuhaitzak moztzen lan egitera. Hasieran bi hilabete behin itzultzen zen etxera, dirua ekartzera. Baina bisiten maiztasuna jaitsiz joan zen, eta gero eta okerrago etortzen zen gainera". Bakarrik emigratzen duten gizon asko erortzen dira adikziotan. "Bakardadeari, lanaren gordintasunari aurre egiteko baltsamoa da", dio Mahesh Markad ingeniari agronomoak. Baltsamo merkea ezinbes-



Janagi Natarajan, zama buru gainean daramala



Tamil emakume nekazarien lanabesak.



tean: Estatuaren monopoliopeko alkohol eskasa edanez, kola arnastuz edota antsiolitikoak hartuz ahazten dute. Mundu mailako farmakoen %22 ekoizten duen herrialdean, hiru rupiaren (0,04 euro) truke eros daiteke Tramadol opio-analgésiko pilula bat. Tamil Naduko bere herrikerik Kerala emigratu eta hiru urtera, Selva Nayagiren senarra konortea galduta aurkitu zuten: “Putzu lehor batera erori eta buruan kolpea hartu zuela esan ziguten. Hilabetez izan zuten ospitalean, baina alferrik”. Nayagik bost seme-alaba zituen orduan, zaharrena bost urtekoa. “Tamil zelako eraso egin ziotela pentsatzea izan zen nire lehen erreakzioa. Gero amorrua, negarra... jainkoak abandonatu ninduela sentitu nuen, erreza-tzeari utzi nion”.

Santhana Maryren (Palur, Tamil Nadu, 1964) senarra gazte-rik alkoholizatu zen, “hemengo beste mutil gehienak bezala”, dio burua makurtuz. Puducherry Batasun Lurraldearekin muga-mugan dagoen herri nekazari honetan, mugaz bestaldeko distileriek erreka-urak ez ezik gizonak ere kutsatu baitituzte. “Ez zuen sekula jornalik ekarri etxera. Edanean xahutzen zuen, eta geratzen zitzaion apurra poltsikotik lapurtzen zioten lurrean botata aमितzen zuenean. Pentsa, garaian Gobernuak populazioa kontrolatzeko sustatu zuen basektomia-kanpainen parte hartu zuen ebakuntzaren truke ordaindu zioten dirua edan ahal izateko”. Santhana Maryrena laidoz, kolpez eta mespretxuz beteriko bizitza istorioa da. “Senarra gibleko gaitzak jota hil zenean,

bakea irabazi nuen etxe barruan, baina herrikideek bizkar eman zidaten kanpoan”. Izan ere, Indiako sineskeriek zorte txarraren eramaletzat dituzte alargunak; urrun eta bizitza publikotik baztertuta nahi dituzte. “Hemeretzi urte daramatzat etxetik 7:00ak baino lehen atera gabe; ez nadin izan inork goizean ikusiko duen lehen pertsona”.

DALIT, EMAKUME ETA ALARGUN

Janagi, Selva, Aasha eta Santhana Indiako nekazal krisiaren biktimak dira, baina ez da buru gaineen eusten duten zama bakarra. Interseksionalitatea ezinbesteko prisma da Indian ezer ulertzera hurbiltzeko: emakume hauek kasta, klase, genero eta gainerako hierarkia sozialen azpi-azpiko mailatan kokatuta daude, eta jasaten duten zapalkuntza bazterreko posizio anizkun horren neurrikoa da.

Akila Natarajan (Thiruvapur, Tamil Nadu, 1977) Nagapattinamgo Alargunen Federazioko koordinatzaileak modu argigarrian kontatu digu senarra galteak nola areagotzen duen zahargarritasuna: “Senarrak

etxe barruko zigortzaileak izaten dira kasu askotan; baina, aldi berean, kanpo-ko balizko erasotzaileak uxatzen dituzte. Maila altuko gizonak kasta baxuenetako emakumeak bortxatzea oso ohikoa da. Familia-buruaren figura hori desagertuta, ordea, maila altukoek ez ezik, maila bereko gizonak ere erasogarritzat jotzen dituzte emakume hauek”. Alargundutakoan, *thali* ezkontza-lepoko kantzera behartzen ditu tradizioak, *shari* kolore-



Selva Nayagi, alargunak identifikatzen dituen bindi zuria kopetan duela.

tsuak alboratu, eta kopeteko *pottu* edo *bindi* puntua zuriz markatzera, ez gorritz. Seinale identifikatzaileak dira, status jakin baten markak. Ezin dute ospakizunetan parte hartu, eta berriz ezkontzea kasik ezinezkoa da birjintasuna aspaldi galdu zuen emakume batentzat. “Baina beren seme-alaben euskarri bakarra dira –dio Natarajanek–, eta hauek aurrera ateratzea bilakatzen da haien helbu bakarra. Jornalari izatetik bizitzerik ez badago, aberatsen etxeetako komunak garbituko dituzte, mota guztietako estortsioak onartuko dituzte, edo prostituziora joko dute, besterik ez bada”. Kanpotik, nekez pentsatzen ahal dugu emakume hauen sufrimendu-gaitasunaren helmena. Dalkien mendekotasuna bezain handia da, edozein kasutan. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

LUAarkitektoak
ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132697 - Arga ibaila kalea 28-30 Iruña

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com

"Kubatik ekarritako gako inspiratzaileak hemengo herri mugimenduekin partekatu nahi ditugu"

Paradigmas Emancipatorios nazioarteko topaketen hamahirugarren edizioa egin dute aurtien Kuban, urte hasieran. Hitzordu hau 1990eko hamarkadan jaio zen Kuban, Sobietar Batasuna erori osteko garai konplexu eta arriskutsuan, eta ordutik bi urtean behin antolatu da. Hego eta Ertamerika osoko herri mugimenduetako ekintzaileak eta alor akademikoari lotutako pertsonak batzen ditu

zitak, eraldaketa prozesu askatzaileak elikatzea eta hausnartzea helburu. Euskal Herritik herri mugimenduen delegazio txiki bat Habanan izan da *Paradigmasen* parte hartzen, Joxemi Zumalabeko, Bizilurreko, Ipeseko, Emagineko eta Ipar Hegoa fundazioko kideek osatua. Bizilur elkarte Miren Sainz Alzugaray eta Ipes elkarte Gorka Zozaia Garciarekin izan gara.

Z. OLEAGA

Paradigmasen hamahirugarren edizioa oso une berezian heldu da, eskuinaren goraldia dela eta: Venezuela, Brasil, Kolonia, Argentina... ze irakurketa egin da egoera politikoaren inguruan?

Miren Sainz: Agendan zegoen, bai. Oso presente egon da Latinoamerikako ezkerren batasunaren beharra orain dagoen mugimendu faxista eta eskuindarraren aurrean. Adibidez, Brasilgo Lula Livre kanpainaren eta Venezuelaren alde elkartasun ekimenak egin dituzte.

Eskuinaren goraldi horren zergatiaz hausnartu da Habanan?

M. Sainz: Nabarmendu den zergatietako bat izan da gobernu ezkeriar edo aurrerakoiak izan diren herrietan jende asko herri mugimenduetatik politika instituzionalera joan dela. Ondorioz, oinarriarekin lana ez dela egin aurretik egin den bezala. Hutsune hori eskuinak bete du komunitateetan, oinarrizko beharrak bere moduan asetuz: erlijioaren bitartez eta indibidualismo kapitalistan sakontzen, esaterako

Gorka Zozaia: Irakurketa geopolitikoak ere egin dira. "Batasuna-aniztasunean" ipar horretan batasunak huts egin duela.

Hemen egiten ditugun zenbait irakurketaren antzera, ortzi-muga komunik ez dugula une honetan.

Hausnarketa arrazionaletik harago, ze animo sumatu duzue egoera konplikatu horretan?

G. Zozaia: Animoz ondo ikusi ditugu.

Han egon gara elkarrekin, konpartitzen, konplizitatez, une horietan giro positiboa dago. Baina aldi berean jende guztia oso kezkatuta dago, nor bere herrialdearen egoera partikularrekin zein oro har Latinoamerika eta Karibekoarekin. Oso egoera bortitzak ari dira bizitzen.



Lan taldeetako batean landutakoa partekatzen.

M. Sainz: Kezka hori badago, baina *Paradigmasen* helburuetako bat hain zuzen ere hori da, indarrak batzea, arnasa hartzea. Autoestimu iraultzailearen beharra azpimarratu da, unearen konplexutasunari erantzuteko: kontuan izatea nondik gatozen eta zre gauza egin diren. Lan handia egin da eta hori baloratzen jakin behar dugu.

G. Zozaia: Gorputza lantzeak ere eman du indarra. Han bide gehiago dute egin dimentsio hori lantzen. Hemengo kongresuetan egun batzuk elkarrekin pasatzen ditugu, baina ondokoari begiratu gabe, nor bere partikularitasun eta indibidualtasunean gordea. Egunerok zeuden jarduerak eskutik elkar hartzeko, kantuan aritzeko, taldea egin eta sentitzeko.

Jorratu dituzuen gaiei begiratu diezaiegun. Zer da Menderatze Sistema Anizkoitza?

M. Sainz: Askok landu zen topaketa osoan. Kontzeptua bera *Paradigma*-setan sortu zen 2008an. Menderatze sistemak dimentsio asko ditu: kapitalismoa, kolonialismoa, heteropatriarkatua eta abar. Dena lotuta dago, bat da, baina esparru edo espazio bakoitzean ezberdin gorpuzten da. Komunitate batzuetan menperatzea erlijioaren bitartez gauzatzen da nagusiki, beste batean estraktibismoarekin eta nazioarteko enpresekin, bestean feminizidioak dira munstroaren aurpegi ikusgarriena.

Egunerokotasuna ere zentroan jarri da. Egunerokotasunaren kolonizazioaz aritu zarete.

G. Zozaia: Niri atentzia deitu dit epainiartasuna, gaztelera, egunerokotasuna eta kolonialismoa lotzen dituztela askok (kontrara, kubatarren artean nahiko presente dago Espainia Madre Patria bezala). Dezente hitz egin da ere teknologiaz, eragiten ari den bizimodu indibidualistaz. Erlijioaren zenbait balore behetik txertatzen ari direla aipatu da ere bai, ezkerrek abandonatu dituen zenbait esparrutan. Oro har eskuineko baloreak ari gara barneratzen gure egunerokotasunean.

Azken hamarkadetan indigenek eta feministek presentzia handia irabazi dute Latinoamerikan. Horren isla nabaritu duzue Habanan?

M. Sainz: Bai. Feminismoa esplizituki ez da hainbeste aipatu, baina irakurketa feministak oso presente egon dira. Kopu-



JOXEMI ZUMALABE FUNDAZIOA

Kubako 'Paradigmas Emancipatorios' topaketetara joan den euskal delegazioa. Gorka Zozaia ezkerretik hirugarrena da, Miren Sainz laugarrena.

ru aldetik osaera nahiko parekatua izan da, emakumeren bat gehiago agian, eta parte hartzeari dagokionez emakume askok hitz egin du, bai hizlari moduan, bai mikrofono irekien txandan. Nahiz eta metodologia zentzu horretan oso herrikoia ez izan, 400 pertsonen aurrean altxatu behar zenuen-eta. Nabaritu da feminismoak azken urteotan indar handia hartu duela. Tentsio batzuk ere izan dira, batasuna eraikitzeke aniztasuna nola integratu pentsatzean feminismoa hor dagoelako. Disputan dagoen beste territorio bat.

"Gobernu aurrerakoiak izan diren herrietan jende asko herri mugimenduetatik politika instituzionalera mugitu da. Hutsune hori eskuinak bete du"

Miren Sainz

G. Zozaia: Bai, tentsio hori nabarmena izan da. Batzuek zenbait gai baztertzearen alde egin dute, "batasunaren" hobe beharrez, bigarren mailakoak direla esan gabe bada ere. Venezuelen gerra ikuspegitik jokatu "behar" horrekin tentsio handia egon da. Borroka indigenak ez ziren hain presente egon, baina Mexikoko lagun indigena bat gogoratzen dut, oso kritikoa.

M. Sainz: *Paradigmasen* ezkerren batasuna goitik behera eta instituzioetatik eraikitzeari balioa eman zaio, eta aldiz horiek esan zuten: "Beno, guk behetik gora eraikitzen dugu, ikuspegi ezberdina daukagu". Dena den, tailerren itxieran Biziera Ona jarri zen helburu bezala kapitalismoaren aurkako borrokan. Mundu ikuskera indigenatik datorren iparra, baina *Paradigmasek* propio bezala barneratu duena.

Latinoamerikako ezkerrek oinarri marxista izan du historikoki. Orain arte aipatu ditugun ikuspuntu eta kezkek nola eragin diote oinarri horri? Desplazatu egin du, elikatu, moldatu?

G. Zozaia: Marxismoa esplizituki ez da oso presente egon, baina hizlari askoren marko interpretatiboa erabat marxista izan da: mundu mailako egoera aztertzean edo erlijioa ulertzeko abiapuntuan, adibidez.

M. Sainz: Kubari buruz asko hitz egin da, hain zuzen ere konstituzio berria sinatu dute egun horietan. Aldaketa asko egin dituzte konstituzioan, arlo ekonomikoan... Sozialismoa da oinarria, baina moldatzen doaz.

Zergatik joan Euskal herritik Habanara Latinoamerika eta Karibe mailako topaketa batzuetara?

M. Sainz: Proposamena Joxemi Zumalabetik eta Bizilurretik sortu zen. Joxemik 2013tik edo abiatu zuen prozesu bat for-



PARADIGMAS CUBA

Hitzaldietako bat areto nagusian.



PARADIGMAS CUBA

Lula Livre kanpainarekin bat egin dute topaketetan.

makuntza politikoa birpentsatzeko. Hor-
tik, besteak beste, Murtzikatuz ikastaroa
sortu da, herri mugimenduen formakun-
tza politikoaren ikuskera eta praktika be-
rritzea helburu. Mapa bat egin genuen,
formakuntza arloan kolektibo bakoitzak
zer egiten duen eta zer korapilo suma-
tzen duen jasotzeko. *Paradigmas Eman-
cipatorios*era hurbiltzea beste urrats bat
izan da bide horretan. Hango mugimen-
duek formazio politikoa nola eta batez
ere zergatik egiten duten ezagutu eta ho-
rrekin inspiratzea da nahia.

G. Zozaia: Horretarako Euskal Herritik
eta Europatik abstraitzea eta ibilbide
sendoa duten esperientzietara hurbil-
tzea oso aproposa iruditu zaigu.

**Zer nabarmenduko zenukete jardun-
aldietatik? Zer ikasi eta desikasi
behar dugu?**

M. Sainz: Guztia dela formazioa, eta for-
makuntza hori askatzailea izan behar
duela, helburu politiko orokor baten
barruan kokatua. Subjektibitatea eta
egunerokotasuna borrokatu behar di-
tugula ere. Botereari zentzu komuna
disputatzea. Balioa ematea egiten dugu-
nari, izena jartzea, hori da autoestimu
iraultzailea.

G. Zozaia: Nik oso presente dut, asko-
tan atera delako jardunaldietan eta gai-
nontzeko erakundeekin egin ditugun
harremanetan, nola ezkerak oinarria
abandonatu duen. Gora joan da, insti-
tuzionalizatu egin da, eta iruditzen zait
Euskal Herrian ere gertatu dela antzeko
fenomeno bat. Oso deigarria egin zai-
dan esperientzia ezagutu dugu Kuban.
Gazte eragile bat, formazio politikoa lan-
tzen duena komunitateetan eta auzoe-
tan. Inork pentsa lezake: "Jo, hauek ja
formatuta datoz, Estatuak betetzen du
eginkizun hori. Marxismoa I, II eta III,
eskolatik oso formatuta ateratzen dira...".
Baina hala eta guztiz ere beharrezkoa da
oinarritik lanketa egitea sozialismoan
urratsak ematen jarraitzeko. Ikuspegi


horrekin bat egiten dut, oinarritzko for-
mazioaren ezinbestekotasunarekin.
Horrez gain, iruditzen zait Euskal he-
rrian asko dugula josteko batasuna aniz-
tasunean eraiki nahi badugu.

**"Euskal Herritik eta
Europatik abstraitu,
eta formakuntza
politikoan ibilbidea
duten esperientzietara
hurbiltzea oso aproposa
iruditu zaigu, gero
itzulera egiteko gurerara"**

Gorka Zozaia

**Euskal Herriko mugimendu gehiago-
rekin partekatuko duzue ikasitakoa?**

M. Sainz: Topaketa batzuk antolatzen
ari gara urriaren 18 eta 19rako, Eibar-
ko UEUn. Ideia da hausnarketa hauetan
sakontzen jarraitzea eta handik ekarri-
tako gako inspiratzaileak hemengo herri
mugimenduekin konpartitzea. Latinoa-
merikatik hiru gonbidatu izango ditugu,
herri pedagogian eta formazio politikoan
lan handia egiten duten mugimendue-
tako kideak. Gonbidapen publikoa ekai-
na amaieran zabalduko dugu, baina hasi
data gordetzen. ●



IRISARRI (Baxe Nafarroa) Ekainak 28/29/30

ISEO & DODOSOUND PELAX
OIHANEKO ZÜHAINETAN ANARI
GARI & MALDANBERA RODEO
NIZURI TAZUNERI IZAKI GARDENAK
BROKEN BROTHERS BRASS BAND ALBA
RAY FERNANDEZ LED SILHOUETTE
OLD SCHOOL FUNKY FAMILY KOBAN
NIÑA COYOTE & CHICO TORNADO
GUMBIAN'BERO MONTAUK IBIL BEDI
LIHER WILLIS DRUMMOND
ASTOKILLO CIRCUS TOI D'ABORD BDS
MANU LOUIS DIABOLO KIWI TXARANGAK
THE VERY SMALL ORCHESTRA LU ROIS
TAILERRAK EZTABAIDAK

ehz.eus

Uscaldunak garen ezquero...

BERAKO 1822KO ESKUIZKRIBU BAT ORAIN ARGITARA

Berako Udaleko artxiboan gorderik dagoen 1822ko dokumentu batek agerian uzten du aginduzko agiri ofizialek ezkutatzen zuten errealitatea: euskaraz aritzea ezinbertzekoa zen herri mailako erakundeetan, "elkar hobeki aditzeko". Lerroz lerro, gerra jasan berri zuten herritarren problematika sozial eta linguistikoak aletu daitezke, euskara eder batean.

 MIKEL TABERNA IRAZOKI

Ustekabe kokkor bat ekarri zigun 1981eko udak. Berako sanestebanak iragartzeko Udalak urtero argitaratzen duen programaren barrenean, *Berako Oihua* ere erraten zaion gehigarrian, herritar letrazaleek huntaz eta hartaz idatziriko testuekin batera, euskarazko izkribu zahar bat heldu zen, inolako oharrik gabe, ez nork txertatu zuen, ez nondik hartua zen, ez zergatik sartzen zen han: "*Uscaldunac garen ezquero, sala unetan arquitcen garen guciyec, uscaraz explicatcia iduritu zaigu, errespetuz beteric, gaur emen tratatcera duayen asuntuba, elcar obequi adituric, acertatceco. Añ andiya eta importantia da, gure ustian, escu artian dugun asuntuba, non unen acertatciac edo utseguitiac ecarri biartio Veraco erriyari probechu larriyac edo calte lastimagarriyac*".

Testu zaharra zen, bai, 1822koa – data bertan heldu zen –, baina hain urtetsua eta jatorrizkoaren argazkia izanagatik aisa irakur zitekeen. Euskara ederrean eta, gainera, ez zen testu erlijiosoa, herriko barbera (sendagilea) hautatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak proposatzen baitzituzten sei sinatzaileek: "*Tratatcen da Barberaren nombramentubaz. Tratatcen da, osasuna edo eriyotcia emaiten duben oficiyo delicaduba artaz...*".

Hogei urte geroago etorri zen Imanol Trebiñoren *Administrazio zibileko testu historikoak* lana, historian zehar euskaraz idatziriko gisa horretako testuen bilduma joria, ikertzailearen bilaketa eta bilketa oparoaren emaitza. Berako udal artxiboan aurkituriko batzuk ere bazeuden tartean, baina ez hemen aipagai duguna.

Ezin jakin zehatz-mehatz zer urtetan ibili ote zen EHuko liburuzaina Berako Udaleko agiri bilduma miatzen. Dudarik gabe, orain hizpidera ekarri dugun hau ez zen gainerakoekin batera izanzen, hark begi eman izatera bildu izanzen baitzuen. Non ote zegoen edo nork ote zuen? Gaur egun Berako artxiboan dago, geronek egiaztatu ahal izan dugunez.

Harritzekoa bada ere, sanesteban haietatik honat ez dugu inon sumatu orain dela ia berrogei urte herriko etxe guzietara sartu zen eskuizkribu honen oihartzunik. Armiarma webguneko *Klasikoen Gordailuan* ez da ageri, eta bertzetan ere ez dugu honen arrastorik ikusi. Eta argitara agertzea erabaki dugu.

HERRITAR GUZTIEI ZUZENDUA, ETXEJABE ZEIN MAIZTER

Sei gizonek sinatzen dute testua. Haietako hiru, elizaren zerbitzariak ziren, herriko erretorea, Juan Estevan Irazoqui, eta herriko bi apez, Martin Josef Hualde eta Juan Esteban Garmendia

–idazkerari erreparatuta, azken hau dugu idazlea–; gainerako hiruretako bat, militarra, gradu altu samarraren jabe zena, Gregorio Echegaray, eta bertze biak, Garmenditxipia jauregiko nagusia, Francisco Estevan Echenique, eta haren seme Santos Echenique.

Seiek euren izenak elkartu eta herri osoari adierazpen bateratua zuzendu zioten. "*Alcate, Erregidore, Vecino, eta habitante Veracuac*". Erran nahi baita, alkatea, zinegotziak eta gainerako herritarrak: etxaldekoak, etxearen jabe zirenak (vecino), eta etxe propiorik gabeak, maizterrak (*habitante*).

Testu zibila izanagatik, estilo erreto-rikoari erreparaturik, idazkiari prediku usaina dario, pulpitutik irakurtzeko prestatu balitz bezala, baina lehenbiziko lerroetan jartzen duena irakurrita garbi dago bertzelako eztabaidagune baterako zela: sala hura Herriko Etxeko aretoa izan behar zuen. Hain justu bertan bildu ziren Batzarre Orokorren bilkura egiteko, artxiboko bertze agiri batean egiaztatu dugunez.

BERA

Edward Hawke Locker marrazkilari ingelesak 1813an eginiko grabatua. Eskuizkribua idatzi zenean, oraindik ere jasaten ari ziren Frantseseak (1808-1814) eskualdean eragindako kalteak.

Crescibore, ...
Gure Haunac:
... oaren erquero, sala unetan arguitcen garen gure,
... explicatcia idixitu zaiou; exierpetor beteric, gaur emen trata
... yen aruntuba, elcar obegui adituxic, acertatceco. Añ andiy
... boxtantia dà, oure urtian, escu artian duoun aruntuba, n
... acertatcia edo utreouitias ecaxi biartio Veraco exriyari
... larriyac edo calte lastimaoarriyac. Tratatcen dà Barber
... rementubar. Tratatcen dà, orasuna edo eriyotcia emaiter
... oficiyo delicaduba artaz. Bada aruntu andiyaooric? Da
... at au, bertce ouciyec bezala utreduñez icarten dena; bin
... enciya andi bat, unen eta bertcien artian. Unetan ut
... anitz aldiz mortalac; bertcietan ertze ala benere, icu
... ren bezala Zugatcetan, Aronñetan, eta bertce ouciyetan
... bat, exiyen bizcax eta costura icarten dena. Da oficiy
... biyar, auzten erpada. bertce urtia
... ouciyec, comen



Barber euskalduna

Izkribuak ez dakar sendagile lanpostua betetzeko hautagaien hizkuntz eskakizunen gaineko aipamenik, baina udal artxiboan bildurik dauden agirietan –horiek denak gaztelaniaz– ikusi dugu oposizioa egin zela Iruñean, bi hautagaien artean bat hartzeko, eta Pedro José Goizueta Alcasena hautatu zutela, sortzez lesakarra eta Igantziko sendagi-

lea zena (eta ezkontua!); bertze hauta- gaia Manuel López zen, ez dakigu nongoa.

Epaileen iritziz, bietako edozeinek ongi beteko zuen sendagile lana, baina Berako Udalaren borondatea kontuan hartuz (“...*con arreglo á los deseos de Ayuntamiento para el mayor acierto en la eleccion, y mas escrupuloso informe...*”), lesakarra hobetsi zuten. Ez dute zehatza-

go argitzen hautespen horren arrazoia, baina litekeena da, hain zuzen ere, haren euskalduntasuna kontuan hartu izana, zeren geroagoko bertze agiri batean, Berako Udalak 1831n bertze mediku bat hautatu behar izan zuen garaian, espre- suki aipatzen baita hautagaiek euskaldu- nak izan behar dutela: “...*los pretendientes deven poseher el idioma bascongado...*”.

Nekazari nafarrak
XIX. mendeko
lehen erdialdeko
grabatuan.



Uscaldunac garen ezquero

BARBER ONA, EZKONGABEA IZAN EDO EZ

Sinatzaileek pentsatu zuten lehen baino lehen zer bait egin behar zutela, ikusirik Berako herriak problema larria zuela: herriko medikua, Juan Manuel Moleda Lostra zugarramurdiarra, hil egin zen ustekabea, gazterik. Haren hutsa beteko zuena agudo hautatu behar zen. Sendagilearen heriotza 1821eko abenduaren 26an izan zen, eta idazkia urtarrilaren 12koa da.

Iduri duenez, mediku jaunak, lehendik alargun izaki, bazuen bere kargu alaba gazte bat bederen. Nonbait, herrian zenbaitek uste zuten zirkunstantzia hori kontuan hartu behar zela barber berria hautatzeko eta ezkongabea zen medikua ekarri beharko zela, umezurtzaren bizilagun –bizitzarako bidaide– ere izan zedin.

Testuaren sinatzaileek aitortzen dute haiek ere bat egiten dutela alaba urrikalgarriari laguntzeko borondatearekin, baina arrunt arriskutsua iruditzen zaiela lagundu nahi izate hori sendagilea hautatzeko prozedurarekin nahastea. Haien ustez, hori ez bertzelako arrazoiak hartu behar ziren kontuan. Nolabait ere, bermatu behar zen herritarren osasunaz arduratuko zenak izan behar zuela, batez ere, mediku ona: “...barber yaquintsu bat, practica eta experimentatuba, eta al-bada hospitaletan obserbacione anitz icusi eta icasi tubena”.

“NECAZALE MISERABLE BATEC EZTU MEDIYORIC”

Horretaz aparte, sinatzaileek herriko diru kutxaren egoeraren berri ere ematen digute: “Eguiya da: erriya pobre arquitcen da: demborac, gure desgracyaz, tristiciac dire. Envidiya andi bat diogu guc Erribera aldeco Vera bezalaco erri batzubei, ceñetan errenta onac baldin badira, eztire gutiyo Barber onac eta famatubac: nola diren Caresan, Tafallan, Peraltan, eta gui-

sa unetaco bertce erri anitcetan. Ecin compara guitezque erriya equin ontasunetan.”

Bera oraindik ere jasaten ari zen Frantsesteak (1808-1814) eskualdean eragin zuen deskalabru ekonomikoa, kanpoko nahiz herriko historialariek euren azterlanetan behin baino gehiagotan aipatu dutena.

Hala, pobreen defentsan agertzen dira. Sendagile ona hautatu behar da, herritar guzientzat ariko dena. Aberatsak ez duke halako kezkarik, deza-keenak badezake; ez duenak, ordea: “Ceren ongui dagona ichian, biartcen bada estutasun batian Barber on batez, ecarrico du campotic bere gostura bederen; biño necazale miserable batec eztu mediyoric izanen”.

EUSKARAZ, ELKAR HOBEBE ADITZEKO

Testuak eskaintzen dizkigun jakin-garri mamitsuak alde batera utzirik, sinatzaileek adierazpen latza egiten digute izkribuaren hasieran berean, ederra bezain krudela.

Testuaren sarreran, hain zuzen ere, justifikatu egiten dute zergatik erabaki duten azalpenak euskaraz ematea: “Uscaldunac garen ezquero...”. Alegia, euskaraz aritzea erabaki zuten, elkar hobeki konprenitzeko, euskarak ematen baitzien euren artean gaizki-uler-turik ez izateko ziurtasuna. Euskaraz esplikatzea behartuak sentitzen ziren, baina “errespetuz beteric”, baze-kitelako ez zela norma –bertzelakoa zela agindua–, eta, nonbait, ez zutela-ko nahi inork haiei kargu hartzea.

Gero erranen dizu gaur egungo jende bere ustezko jakintsu zenbaitek hemen geronek utzi dugula mendez mende euskara zoko batean usteltzen, euskara gero eta gutiago erabili dela geure borondatez, guk geronek hala nahita, “zeren herriak ez baitu hainbeste estimatzen euskara”, Gandiagak zioen bezala. ●

IZKTRIBUA OSORIK ETA HIZKUNTZ AZTERKETA ERE BIDEAN

Herritarrei zuzendurik eta herri-ritar guziek ulertzeko asmoz eginiko euskarazko testua izanik, izkribuan bertako hizkera erabiltzen saiatu izanen ziren, nahitaez. Sinatzaileek izanen zuten horretarako gaitasunik aski, seiak Beran jaioak baitzi- ren, elizako datuen artxiboan ikusi dugunez.

Hori kontuan hartuz, inter- resgarria litzateke hizkuntza- ren aldetik aztertzea eta alde- ratzea lehendik bilduak diren garai bertsuko idazki zibilekin nahiz erlijiosoekin –Berakoak zein ingurukoak, mugaren bi aldeetakoak–, bai baitira ha- lako bat baino gehiago.

Horretarako, izkribua osorik laster argitaratuko da aldizkari espezializatuan, eta Ekaitz San- tazilia hizkuntzalari adituaren iruzkina ere agertuko da bertan, halako eginkizuna ez baitago gure esku, zeren hori baillitza- teke, izkribu zaharraren egileei ikasi diegun erranera ederra ba- liatuz, “...sagar omuac escatcia bezala elorriyari...”.

HITANO IKASTAROEN GORAKADA

Aparraldia ote den

“Hitano ikastaroa egin dut”; “Hara ba, ni neu oraintxe hastekoa naiz!”; “Beste hari entzun diot bere herrian ere antolatu dutela”. Batean eta bestean, halako elkarrizketak entzuten dira, beti ere, Gipuzkoan. Ikastaroak inoiz baino gehiago ugaltu ote dira? Nor ote da ikasle? Hitanoa aparraldian al da? Ikerketa zehatza egiteko asmorik gabe, hiru hitano irakasleri esker, termometroa jarri dugu. Xabier Eizagirre Landa, Ritxi Lizartza Urrestarazu eta Iñaki Iturain Azpiroz izan ditugu bidelagun.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Hiru irakasleei azkena egin diegun galderatik hasiko gara. Hitanoa aparraldian al da? Ala beharbada hobe esanda, hitano ikastaroak aparraldian al dira? Xabier Eizagirre Iralen irakaslea da 1981-82 ikasturtetik. Euskara hobetzera doazkion irakasleei hitano eskolak ematen dizkie. Iraletik kanpo ere aritu da ikastaroak ematen, Donostiako Amara eta Egia auzoetan, eta Oiartzunen. Eizagirrerren sentsazioek bi gustuak dituzte: “Bai, zerbait mugitzen ari da; Zumaia, Azpeitia, Tolosa, Oñati, Zestoa... Gipuzkoa aldean beti ere. Iralen hitano eskolen eskaintza egiten dugunean konturatu naiz lehen baino jende gehiagok ematen duela izena. Iraletik kanpo, elkarteren batek ikastaroa antolatu eta jendeak erantzuten du. Horixe poztzua. Bestalde, zuk aparraldia aipatu duzu eta nik loraldia terminoa erabiliko dut. Ez dakit ez den azken ostikadak ematen ari den zuhaitza edo landarea, azken lore mordoa.


Agian lore berriak sortuko dira, bertso-laritzan begira zer gertatu den, baina gu aparralditik urruti gabiltza. Orain egiten ari diren ikastaroak esperantzatxo dira. Dena dela, aurrera egiteko lehentasuna nokari eman behar zaio, neskek ikasi dezatela, baina mutilek ere bai”.

Iñaki Iturain Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, Euskara Zerbitzuan, Euskal Giroitze Barnetegietako koordinatzailea da. Lan horretaz kanpo, Donostian, Orion eta Zarautzen eman ditu hitano ikastaroak. Euskara elkarateak, udal euskaltegiak eta udalak izan dira antolatzaile. Ez du uste aparraldian gaudenik, toki gutxi batzuetan ahalegin batzuk baino ez ditu sumatu: “Hutsaren hurrengoa dira, ordea. Modu sistematiko eta serioan ez da ezer egiten haur-gazteek ikas dezaten, ez eskola publikoan, ez ikastoletan, ez euskaltegietan. Tradizioz eta transmisioz ari da hika hitz egiteko ohitura bizirauten, baina galera oso nabarmena da. Noka toki

guztietan ari da galtzen eta gaztetxoaren artean ‘gehiegika’ fenomeno [hitano formak behar ez diren tokian ere erabiltzen dituzte] zabaldu da. Hezkuntza Sailak, Ikastolen Elkarateak eta Hizkuntza Politikak erabaki serioak hartzen ez badituzte, belaunaldi gutxi barru hondoratuko den itsasontziaz ari gara hizketan. Modu sinbolikoan gauza batzuk egiten ari dira, Zakilixut, hainbat pertsonaren ahalegin serioa (Kike Amonarriz, Ritxi Lizartza, Juan Martin Elexpuru...), feminisмотik ere bai, baina ez da nahikoa.

Ritxi Lizartzak hika egiten ikasteko eskuliburua argitaratu zuen 2009an: *Hitanoa. Mintza hadi, lagun!* (Maramara). Makina bat hitano eskola eman ditu azken urte luzeetan, erakunde publikoetan batik bat, baina baita euskara elkarateek eskatuta ere. Batez ere hezkuntzako eta euskalduntze eskoletako irakasleak izan ditu ikasle. Berari ere aparraldiaz galdetu diogu: “Ikastaroak antolatzen ez badira beste inork ez ditu eskatuko, bai-





na egiten badira ahoz ahokoak eragina dauka. 2009an atera nuen eskuliburua eta 2012a artean eskaera oldea nabaritu nuen. Ez dakit modan jartzen diren ikastaro horietakoak diren. 2012. urtea eta gero etenaldia egon zen eta orain berriz hasi dira eskatzen. Genero ikuspegia kontuan hartuta [batez ere nokaren galerari aurre egin nahi diote] hitanoa landu nahi duten kolektiboak ari dira eskaerak egiten eta garrantzitsua da lehen hitanoaz kontzientziarik ez zuten kolektiboak aktibatzea. Hala ere, ulertzen dut emakumeen ahalduntzea garrantzitsua dela, baina gizonak ere erakarri beharra dago noka egitera. Nolanahi ere, zabaldu den bidea oso garrantzitsua da. Hortik ikastaroak emateko joera indartuko da eta kontzientzia ere bai. Gustatuko litzaidake aurrera jarraitzea”.

NOR DA HITANO IKASLE?

Hiru irakasleei ikasleak nolakoak diren galdetu eta gutxi gorabehera haien per-

fila deskribatzeko moduan gara. Hitano ikastaroetara nor ez den joaten esan digute: gazteak. Beti ere hitanoa bizirik dagoen tokiez ari garela, gazteek kalean badarabilte; asko eta oker. Hitanoari buruzko ezagutza kaskarra dute eta gaizki erabiltzen duten kontzientziarik ez. Eskolak hartzera doazenak helduagoak dira, eta asmoak hainbat. Ikasle batzuk hutsetik hasi dira. Euskara euskaltegian ikasi dute, asko EGA mailara iritsi dira eta hizkuntza lantzen jarraitu nahi dute. Hitanoak jakin-mina sortzen die. Beste ikasle asko berriz, hika hobetzeko asmoz gerturatzen dira eskoletara. Batzuk apenas erabiltzen duten egunerokoan, baina entzun dute kalean, etxean, lagun artean. Beste batzuk hika ari dira barra-barra, baina jabetuta daude oker ari direla. Hitano formak behar ez diren tokian jarritz hitz egiten dute, Eizagirrek “hika ez, erdika” deitzen dio, eta Iturainek “gehiegika” aipatu du. Iturainek, esate baterako Orion bertsolariak izan zituen ikasle,

hitanoa hobetzeko asmotan. Beste hanka-sartze izarra emakumeei noka beharrean toka egitea da, hutsegite oso zabaldia. Noka egiten ez dakitela aitortzen duten gizonak doaz eskolara. Izan ere, bat baino gehiago dira emakumeekin zuzen ari direla uste duten hika hiztunak, eta konturatzen ez direnak emakumeei toka ari direla.

Generoari dagokionez, badirudi ikasle emakumezkoak gehixeago direla. Hala ere, hiru irakasleek denetariko taldeak ezagutu dituzte, batzuk bietarikoak, baina baita emakume bakarreko taldea eta gizon bakarreko taldea ere. Ikasle emakumezkoei dagokienez, Lizartzak argitu digu nahiz eta batzuetan ikasleak nokaren galerak kezkatuta hurbildu diren, emakume gehienek ikastaroetan parte hartu dutela hitanoaren galderak eta erabilera okerrak eraginda.

Aparralдитik gutxi, beraz. Jakin-minez eta hika hiztun hobea izan nahian ari diren azken mohikanoak, agian. ●



"Kritikoa naiz ezkerrearekin, futbola eskuin muturraren esku utzi duelako askotan"

CARLES VIÑAS, FUTBOLA IKERGAI

Carles Viñas (Bartzelona, 1972) Historia Garaikidean doktore eta irakaslea da Bartzelonako Unibertsitatean. Futbol jarraitzaileak sutsuak skindhead mugimendua eta kirol eta politika arloko muturreko jarrerak ditu ikergai. *Futbol al país dels soviets* (Futbola sobieten herrian) liburua plazaratu du Tigre de Paper argitaletxerekin.



MARIA COLERA INTXAUSTI ORIOL CLAVERA

Zerk eraman zaitu Errusiako Iraultzaren eta futbolaren hedapenaren arteko loturaz idaztera? 2017an Errusiako Iraultzaren mendeurrenari buruzko ikastaro bat eman genuen unibertsitatean eta kirolak Iraultzan izan zuen eraginaz hitz egiteko eskatu zidaten. Ikertzen eta informazioa bilatzen hasi eta ikusi nuen oso gutxi ezagutzen zen materiala zegoela. Orduan bildu nuen informazioarekin liburu bat idaztea proposatu zidan Tigreko editoreak.

Liburuak ibilbide historikoa egiten du, hiru fasetan antolatuta.

Bai, futbola aitzakia izan da Errusia inperialetik Sobietar Batasunerako (SESB) jauzia azaltzeko eta ikusteko zer ondorio sozial izan zituzten Errusiako Iraultzak (1917), gerra zibilak (1917-1923) eta bi Mundu Gerrek. Historia-liburu bat da eta kirol-jarduera inguratzen duen testu-guru sozio-politikoa azaltzen dut futbolaren bidez.

"Banderak, ideologiak eta sentimenduak batzeko aukera bakarra futbola" zela esaten da

pasarte batean. Nola funtzionatzen du futbolak identitate nazional hegemonikoa sortzeko tresna gisa?

Futbola, gertakari sozial gisa, politika da, baina bi alde ditu. Botereak erabili dezake herrialde, gizarte edo komunitate jakin bat kohesionatzeko; baina, aldi berean, disidentzia eta protestarako eremua ere izan daiteke. Etengabeko dualitate hori aurkitzen dugu futboleko: diktadoreek eta gobernuak erabili dezakete, baina oposizioko taldeek eta nazio-askapenerako mugimenduek ere bai.

SESBren kasuan, agintariekin etnia eta erlijio anitzeko herritarrek integratzeko eta kohesio nazionala bultzatzeko erabili zuten selekzioa, herritar guztiak Sobietar Batasunarekin identifikatzen zituen elementu gutxietako bat baitzen hura, banderarekin eta ereserkiarekin batera.

Futbolak aglutinatzaile nazional gisa duen potentzial horretan biztanleriaren erdia, alegia emakumeak, kanpo uztea ez al da arazo bat?

Futbola izan daiteke abangoardia edo egon daiteke sozialki atzeratuta, eta kasu honetan bigarrena gertatzen da. Ema-

kumezkoen futbola ez da azken boladan sortutako zerbait, ordea. I. Mundu Gerran hasi zen, Ingalaterrako gizonak frontera joan eta emakumeak gerra-industrian lanean hasi zirenean. Fabrika bakoitzak bere liga zeukan eta gizonik ez zegoenez jendea emakumeen futbola ikustera joaten zen. 50.000 lagun ere elkartzen ziren emakume haiek ikusteko; Dick eta Kerr Ladies bezalako klubetan jokatzeko zuten.

Gerra amaitzean, ordea, gizonak itzuli eta berriz hasi zuten euren liga, baina jendea ez zen gerra aurretik bezainbeste joaten, eta federazioak emakumeen futbola debekatzeko erabaki zuen, 1970eko hamarkadara arte.

Estadioak maskulinitate hegemonikoaren tenpluak izan ohi dira.

Futbola metafora sozial bat da eta ezin da espero gizarte patriarkal oso maskulinizatu batean futbola desberdina izatea. Futbola gizartearen isla baino ez da: batzuetan aurretik doa eta beste batzuetan atzetik.

Una historia de la ciutat a través del Barça (Hiriaren historia bat Barçaren



eskutik) liburuan, taldeak hirian izan duen azterna aztertzen duzu. Nola bihurtu da “Bartzelonako kirol-talde maitatuena, Kataluniako errotuena eta munduko klub garrantzitsuena”?

Unearen arabera, modu batera edo bestera. 1918an, adibidez, Barçako zuzendaritzak Autonomia Estatutuaren aldeko kanpainarekin bat egitea erabaki zuen; frankismoan erresistentzia-esparru bat izan zen: katalanez hitz egiteko lekua, senyerak eraman zitezkeen...

Gauzak aldatuz joan dira denborarekin. Barça klub bat baino gehiago dela esan izan da eta oraingo zuzendaritzarentzat marka global bat da. Taldeen nortasuna garatuz doa eta ikusiko dugu zer gertatzen den Barçarekin. Egoera soziopolitiko-a dela-eta *impasse* batean gaude, eta masa sozialean ez da joera bat edo bestea nagusitu guztiz. Ezin dugu espero Barçak bere burua errepublikar eta independentistatzat jotzea gizarteak egiten ez badu.

Zer iruditu zitzaizun 2017ko urriaren 1ean partida jokatzeari?

Gaizki. Egungo zuzendaritzaren akatsetako bat da epele jokatzeko duela. Urriaren

1eko goiz hartan gertatu zen guztiarekin ez zen partida jokatu behar. Ikusi behar erabakia nork hartu zuen, jokalariek ala zuzendaritzak, puntuak galtzeko beldurra zeukaten jokalariek presionatuta.

Zer uste duzu zuk?

Ez dakit, baina jokalariek erabaki bazuten eskumena ez zen haiena, zuzendaritzaren eta klubaren soldatapekoak baitira azken batean.

Zuk zergatik uste duzu Barça klub bat baino gehiago dela?

Jende askorentzat, futbola gustatu ala ez, Barçak Kataluniaren ideia bat ordezkatzeko du, frankismoari eta Primo de Riveraren diktadurari aurre egin ziona. Beraz, ez da futbol-talde bat soilik. Athletic ez den bezala, edo Glasgowko Celtic edo Livorno ez diren bezala. Talde batzuek oso nortasun markatua daukate, eta nortasun hori kirol esparrutik harago hedatzen da, esparru sozial eta politikoraino.

Tolerància zero. La violència a l'esport (Zero tolerantzia. Indarkeria kirolean) liburua idatzi duzu. Zein funtzio



“Futbola ihesbide moduko bat da askorentzat. Kezka politikoak eransten badizkiozu, eta kontraesan edota pentsamendu kritikoarekin nahasi, zama bihurtuko zaie”

du hooligan mugimenduak?

Hooligan fenomeno-a zer da, aurkariak egurtzeko alde aurretik antolatutako indarkeria? Halakoak oso-oso gutxi dira eta oso garrantzitsua da futbol-zaleak ez kriminalizatzea, jende biolentoa kohesionatu eta ikusgarritasuna ematen zaielako horrela, eta hori da nahi dutena. Hedabideetan atera nahi dute, eta gertakari puntual bat lehen orriko albiste bihurtzen duzunean, halako jarrerak indartzen ari zara. Niri iruditzen zait jarrerazale gehien jarrera baketsu eta alaia sustatu behar dela eta federazioak,

erakundeak eta hedabideak oker jokatzaren ari direla gai honekin.

Nola azaltzen duzu futbolariekin jende askok epai kritikorik ez egitea? Messirekin, adibidez, milioika euroko zerga ordaindu ez arren idolotzat hartzen du ezkerreko jende askok.

Jende ugarirentzat Messi jainko bat da Lurrean, bere dohainen bidez poz handia ematen dielako bizitzan. Askorentzat bizitza oso gogorra da eta horri helden diote, nahiz eta zergak ez ordaintzeagatik zigortuta egon. Futbola ihesbide moduko bat da jende askorentzat eta horri kezka politikoak eranstean badizkiozu, eta kontraesanekin eta pentsamendu kritikoarekin nahasi, zama bihurtzen zaie, futboleant bilatzen dena inguruko jendearekin tarte lasai bat pasatzea denean.

Mickäel Correia-ren *Una història popular del futbol* (Futbolaren historia herrikoi bat) liburuaren hitzaurrea idatzi duzu. Zer dela eta futbolaren alde herrikoi hori aldarrikatzeko beharra?

Ezezaguna zaigulako eta gutxietsi egiten dugulako sarri, eta futbolarik alde herrikoi, politiko eta sozialki konprometitua baduela onartuz gero futbola herriaren opioztat hartzen duen topikoa hausten delako. Ni oso kritikoa naiz ezkerrearekin, futbola kontzientziaren alienatzailea dela esanez eskuin muturraren esku utzi duelako askotan, eta garrantzitsua da aitortzea protesta, disidentzia, antifaxismo eta askapen-borroken esparrua ere izan dela, masa-fenomeno gisa hedatu zen une beretik.

Zer du futbolarik herrikoitik eta zer eliteen tresnatik?

Hasiera batean, futbola eliteen kirola zen, sortu zenean, XIX. mendean, aisialdirako denbora zeukaten bakarrak bizi-modua bideratuta zeukatenak zirelako. Industria Iraultzaren garaian gaude, langile klasea sortu zen garaian, eta langileek hamabi-hamalau-hemezortzi ordu-ra arteko txandak egiten dituzte asteko sei egunetan.

XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran gauzak aldatu eta futbola masa-fenomeno bihurtu zen, langile klaseak bere imaginarioan txertatzearekin batera. Ordurako lanaldiaren murrizketa lortu zen Bartzelonako La Canadenca fabrikako 1919ko grebari esker, eta klase baxuak futbola bereganatu zuenean, eliteak haiengandik bereizteko baztertu



eta beste kirol batzuk lehenetsi zituzten, hipika eta eskia esaterako.

1990eko hamarkada arte futbola langile klasearen kirola izan da, baina 1996ko Eurokupan –Ingalaterran jokatu zen–, sektore batzuek ikusi zuten etekin ekonomikoa atera zitekeela eta gaur egunera arte iraun duen futbolaren merkantilizazioa hasi zen. Futbol modernoaren, negozio-futbolaren hasiera da. Futbol mota horrek abonamenduak garestitzea ekarri du. Jende xehe asko estadioetatik kanpo geratu da, futbola telebistan ikustera behartuta.

Futbol herrikoiaeren eredu oso ezaguna da Hanburgoko Sankt Pauli, eta liburu bat idatzi duzu hari buruz Natxo Parrarekin batera. Nolatan dauzka hogeit mila jarraitzaile eta seihun peña mundu osoan?

Negozio-futbola nagusitzearekin batera, jende askok bere ohiko kluba arrotz sentitu du eta komunitateari eta auzoari lotuta dagoen futbol jatorragoaren bila jarri da. Eta horixe da Sankt Pauli: jende askok bere kluba izatea nahiko lukeen ispilu bat. Ahaztu gabe talde profesionala dela, eta bere kontraesanak dituela. Sankt Paulik ez du inoiz titulurik irabazi, baina milioika jarraitzaile dauzka Europan eta mundu osoan, ibilbide sozial bat daukalako, errefuxiatuen aldeko kanpaineekin, edo LGTBI kolektiboaren alde, G20aren aurka... Askok beren talderako nahi luketen inplikazio horregatik dauzka hainbeste jarraitzaile.




“1996an sortu zen futbol modernoak, negozioa ardatz duena, sektore batzuek ikusi zutenean etekin handia eman zezakeela”

Eta antifaxismoarekiko konpromisoa nondik datorkio?

Estatutuetan bere burua antifaxistatzat eta diskriminazio ororen aurkakotzat jotzen duen munduko klub bakarra da, eta 1980ko hamarkadatik dator jarrera hori. Klub gisa eratu zenean, Hanburgoko portuko taldea zen, bi mila lagun erakartzen zituen zelaira, gehienak zaharrak. Baina orduan mugimendu autonomoko jendea, punkiak, nuklearren aurkako mugimendukoak, parlamentuz kanpoko ezkerreko jarraitzaileak... hasi ziren estadiora joaten eta Alemanian eskuin muturra gorantz zihoan garai hartan *Sankt Pauli gegen rechts* [Sankt Pauli eskuinaren aurka] eta *kein fußball den faschisten* [futbolik ez faxistentzat] aldarriekin. ●

Uharteen izena eta izana




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Callao (Peru), 1772ko irailaren 26a. *Aguila* fragata espainiarra portutik abiatu zen Tahitira bidean, Domingo Bonetxea kapitain getariarra (1713-1775) buru zuen espedizioan. Urte batzuk lehenago James Cook kapitaina iritsia zen Polinesiako inguru haietara, eta Peruko erregeorde Manuel d'Amat i de Junyent beldur zen britainiarrek handik erregeorderrria edo San Karlos (Rapa Nui) uhartea erasoko zutela. Horregatik bidali zuen Bonetxea uharte haietara, "atzeritarren azpikerien berri jakitera, (...) kristautasunera arima berriak ekartzera eta erregearentzat basailu gehiago ekartzera".

Abiatu eta hilabetera, *Aguila*-ko eskifaia uharteak begitatzten eta izendatzen hasi zen. Lehena San Simon eta San Judas (Tenere) izan zen. Ondoren, San Kintin (Haraiki), Santu Guztien uhartea (Anaa) eta San Kristobal (Mehetia) ikusi zituzten. Azaroaren hasieran iritsi ziren Tahitira eta erregeordearen izena jarri zioten inguruko uharte handienari: Manuel d'Amat i de Junyent. Bueltan Santo Domingo (Moorea) ere ikusiko zuten. Bigarren bidaian irla gehiago ikusi zituzten: San Narziso (Tatakoto), Martiriak (Tekokoto), San Joan (Hikuera), San Julian (Faaite) eta San Blas (Tahanea). Bonetxea bidaia horretan hil zen, Tahitin, 1775eko urtarrilaren 26an.

Getariarra izan zen lehena erregearen izenean irla horiez guztiez jabetzen.



MENDEBALDEKO SOZIEKATE UHARTEAK (1784). MAPA JAMES COOK KAPITAINAK 1769AN IRLETARA EGINDAKO LEHEN BIDAIA OINARRITU ZEN. DOMINGO BONAETXEA GETARIARRA URTE BATZUK GEROAGO IRITSIKO ZEN INGURU HAIETARA.

Baina zaila da jakiten nork "aurkitu" ziotuen lehenengoz: Pedro Fernández de Queiros portugaldarra, García Jofre de Loaisa espainiarra, Louis-Antoine de Bouganville frantziarra eta Wallis eta Cook britainiarrak ere inguru haietan ibiliak ziren lehenago.

Eta, jakina, polinesiarrak europarrak baino askoz lehenago iritsiak ziren uharte haietara. Egun Frantziar Polinesia osatzen duten irlak K.o IV. mendean iritsi ziren eta 800. urteaz geroztik bizi ziren

Bonetxeak bataiatutako uharteetan.

Zorionez, izen europar katoliko horiek ahaztu eta, egun, jatorrizko izen polinesiarrak dituzte irlek, hemen parentesi artean jaso ditugunak. Tamalez, espainiarrak alde eginez geroztik, Frantziaren menpe daude. Itsasoaz Haraindiko Kolektibitatearen (*Collectivité d'outre-mer*) parte dira egun eta, besteak beste, 90eko hamarkadan debekatu zituzten arte, arma nuklearren entseguetarako erabili izan ditu Frantziak. ●

Egurrezko eskulturarik zaharrena


Shigir-eko idoloa Siberiako ekialdeko ertzean aurkitu zuten 1890ean (argazkian, eskulturaren burua). Ordutik geroztik, kontserbazio egoera kaxkarrak eraginda, eskultura luzea desgaiten joan da; bost metrotik gora luze zen aurkitu zutenean eta orain erdia besterik ez da geratzen. Baina bitartean arrastoak aztertu dituzte eta duela

bizpahiru urte piezaren adina zehaztu zuten: 11.000 urte ditu, Göbekli Tepe-n (Turkia), munduko gurtza gune zaharrenean aurkitutako pilare antropomorfoek bezalaxe. Horrek esan nahi du, garai hartan, Ekialde Hurbileko lehen nekazariak bezala, Uraleetako ehiztari biltzaileak ere arte objektu monumentalak sortzen hasi zirela. ●



THOMAS TERBERGER

PIPERMINAREN TRISTURA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Piper soroen etorkizuna beltza ikusten dut nik. Urtea joan eta urtea etorri, soro berean landare bera eta bakarra lantzen bada, urte gutxi barru arazo larriak izango ditu.

Landagailuarekin zuloa egin eta landarea sartu. Aurtengo udara berotuko duen minaren piperminak (*Capsicum annuum*) landatuta daude. Pentsatze hutsarekin hortzak izerditan jarri zaizkit.

Gure herrian Oria ibaia errio bihurtzen da, eta bere alde batera zein besterako erriberetako jendearengan piperminari buruzko izugarritzko jakintza eta kultura bizi da. Piperminaren lantzea ez da zaharra, baina azken urte hauetan ikaragarri hedatu da. Jendeak gero eta gehiago eskatzen du eta sail handiak ematen zaizkio. Tresneria gero eta aurreratuagoa erabiltzearen aldeko apustua egin dute ekoizle nagusiek. Soroetan plastiko beltza, tira-tira egin da zimurren arrastorik gabe jartzen du traktoreari atzean erantsitako makinak, xuxen-xuxen. Garai batean, marka erabiltzen zen soroko ereintza lanak txukun eta xuxen egin ahal izateko; laun batek edo bik tiraka, tramankuluak arrasto paraleloak marrazten zituen,

gero han erein eta landareak erroila zuzenetan tarte jakin batekin haz zitezen. Piper soroetan, lurraren prestaketa, landaketa eta zaintza lanak egiteko bi-tartekoetan aurrerapen handiak ditugu egun. Lan bat bada, nahitaez eskuz eta leunki goxo-goxo egin beste aukerarik ez duena: piperminen bilketa. Pipermina ttikia, guri-guria, fina jaso behar da. Handitu eta azala zakartu ondoren inork ez du nahi. Bilketa maiz-maiz egiten da, bi-hiru egunetik behin. Ez da oraindik landarean dauden aleen artean behar bezala bereiziz tajuzko bilketarik egingo duen makinarik asmatu. Ale zakartuak kendu eta lurrera bota, han bertan; fruitu ttikiegiak hurrengorako utzi eta pipermin egokiak eztiki kendu landareari, adar hauskorrak eten gabe; uztak jarrai dezan. Lan hori sos batzuen alde makina bat gazte ikaslek egin izan dute; diru pixka bat egiteko aukera zen. Gaur egun, makurtuta egiten den lan gogor hori kanpotik etortzen den jendeak egiten du.

Piper soroen etorkizuna beltza ikusten dut nik. Pipermin landareari azpitarako jartzen zaion plastikoaren kolorekoa. Urtea joan eta urtea etorri, soro berean landare bera eta bakarra lantzen bada, urte gutxi barru arazo larriak izango ditu. Elikagai berak jan eta besteak lurrean pilatu. Arazo horri aurre egiteko, udazkenean ongarri berdea erein (adibidez oloa, *Avena sativa*, eta zalke arrunta edo txirta, *Vicia sativa*) eta lurra bereonaratzea oso ona litzateke.

Lurraren neke horrez gain, bereziki piperminari erasotzen dioten gaitzak eta izurriteak ere ederki ezarri eta kokatuko dira. Urtero beretzako bazka den landarea hantxe, eskuera. Eta horrek bai ez duela konponbiderik. Birusek jipoi handia ematen diote, eta, batez ere, bere-berea duen tristurak ere, *Phytophthora capsici*. Hala izena du bai gaitzak, piperminaren tristura, izan ere hostoak tente eta mardul egon beharrean zimelduta eta ziltzilik, indargabe agertzen dira, triste eta goibel. ●

VENEZUELAKO EL MAIZAL KOMUNA

ELKARTASUN HAZIAK BILTZEKO KANPAINA INTERNAZIONALISTA ABIAN

GARAZI
ZABALETA

Venezuelako iraultza bolibartarra-
rekin lurak terrateniente han-
dien eskuetatik herritarrenera
pasatzen hasi zirenean, eremu soziopo-
litiko eta produktibo berriak martxan ja-
rri zituzten herrialde osoan: komunak.
2009an hasi zen komunaren prozesu pro-
gresiboa; 2015ean 1.500 bat zeuden, eta
gaur egun jada 3.000 inguru dira. “Egia da
denek ez dutela berdin funtzionatzen, eta
bereziki El Maizal komuna dela Venezue-
lan erreferentzia eta indar handia duena”,
azaldu du Saul Curto America Latina Par-
te Hartuz ikerketa taldeko kideak.

HAZIAK LORTZEKO ZAILTASUNEI AURRE EGINEZ

El Maizal komunak hamar urte bete di-
tuen honetan, hango nekazariak haziak
lortzeko zailtasun handiak dituztela dio
ekintzaile internazionalistak: “5-6 urte da-
ramatzate El Maizalen eraso inperialistak
jasaten, gerra ekonomikoa kasu, eta neka-
zari komuna izanik haziak lortzeko dituz-
ten zailtasunen aurrean erabaki dugu he-
men eragile ezberdinen artean elkartasun
kanpaina internazionalista abiatzea”.

Zertan datzan kanpainak? Bada, haziak
bilduko dituzte Euskal Herrian, ondoren
El Maizaleko nekazariei eramateko. Diru
bilketa ere egingen dute haziak erosi eta
bidaltzeko nahiz han bertan haziak eros-
teko. “Landatzeko bi garai dituzte Vene-
zuelan: bata abuztu-irailean da, beraz,



oraingo kanpainatik lortzen diren haziak
uztailean eramanez dituzte Euskal Herri-
tik joan den brigada internazionalistak, on-
doren hango nekazariak landatu ditzaten”.

BEDERATZI ERAGILEREN ARTEKO ELKARLANA

Hainbat eragilek elkarlanean abiatu dute
El Maizal komuna babesteko kanpaina
Euskal Herrian: Askapena eta Komite In-
ternazionalistak, Amerika Latina Parte
Hartuz ikerketa taldea, Euskal Herriko
Hazien Sarea, EHNE, Etxalde, Bizilur, Paz
con Dignidad, Emakumeen Mundu Mar-
txa eta ARGIA daude sare zabal horretan.

“Antolakuntza herritarra duten eremuak
dira komunak, eta eredu horiek babes-
teko gure alea jartzea da kanpainaren
asmoa”, dio Curtok.

Hazien bilketarako kanpaina hau ko-
munaren eta orokorrean iraultza bo-
libartarraren proiektu komunala za-
baltzeko ere aprobetxatu nahi dute
bultzatzaileak. Horretarako, hainbat hi-
tzaldi emanen dituzte hurrengo hilabe-
teetan Euskal Herrian zehar.

Hazien kanpainarekin bat egin nahi
duenarentzat kontu korronea zabaldu
dute: 3035 0028 16 0280101602 El Mai-
zal Kanpaina. ●

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK *sarea*

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1979ko urtarrilaren 28a



KOLDO IZAGIRRE

Bortizkeria eta iskanbila lekua baitzen Hego Euskal Herria 1979 hartan, 11.000 polizia geneuzkan, polizia bat 250 biztanleko. Aski interesgarria izan zen boterearentzat istiluak hain erraz sortzen genituen eta zizkiguten garai hura, laborategiko akuriak bezala erabili gintuzten indar zanpatzaileen demokraziaren bataioarekin zuritu ahal izateko: neurrikoa, sufritua, eredugarria bihurtarazi genuen aparatu frankista gorrotagarria. Baldin poliziak inoiz, inon, inola desmasiarik egiten bazuen, basatien aurkako autodefentsa zen. Basakeria, 1979ko San Sebastian bezpera hartan, balkoi ofizial batean ikurrinaren ondoan zegoen Espainiako bandera desagertu izana.

Portada honek adierazten digun moduan, poliziak ez zuen huts egin gero eta demokratikoagoa izateko abagunea. Neurri, sufrituz eta eredugarri bete zuen bere egitekoa.


Bagenekien jakin komisariak legearen zeroguneak direla, baina laster ikasi behar izan genuen kolpeak eta zauriak eta hausturak esplikatzeko sinesgarritasun handiagoa daukala polizia baten hitzak, epaitegian, traumatologoaren azalpen zehatzenak baino.

Berdin da protestan, garagardo lata bat husten edo edanaren ondoko iskanbilan, herritarra alde aurretik dago deabrutua, gorrotoa praktikatzan du beti. Berdin da polizia derrigor frankista izan barik be. ●

ARGIAK 100 URTE

2006, LEHEN BIDEOA

Evo Morales, xuabe hasteko



Argia.eus webguneko Multimedia kanalean ikus daiteke Amets Arzallus eta Txomin Txuekak eginiko elkarrizketa.

MIREN OSA GALDONA

Ikus-entzunezkoen kultura gizartearen erraietaraino sartua dagoen garaiotan, poltsikoan eskua sartu eta edozer grabatzeko gai garen honetan, zaila da halako erraztasunik gabeko garaia oroitzea. Bada, duela hamahiru urte baino ez da atzera egin behar ARGIAk sareratutako lehen bideoaren arrastoa aurkitzeko.

2006. urtea zen. Xabier Letona eta Pello Zubiria *VilaWeb*eko erredakzioan egon berriak ziren, eta Katalunia aldean kamerekin saiakerak egiten hasiak zirela ikusita, ARGIA ere gauza bera egin zitekeela otu zitzairen. Ezezaguna eta urrunekoa zirudien mundu batera sartu behar zirela jakinda, ulergarriena proba apal batekin hastea izango zen, Euskal Herriko pertsonaia esanguratsu bati eginiko elkarrizketa irudiz jasoz, esaterako. Ez litzake, ordea, ARGIAren estiloa izango: Amets Arzallusek eta Txomin Txuekak Boliviara egin behar zuten bidaia baliatuz, korrika eta presaka eskuko kamera bat erosi eta esperimentuari ekin zioten. Emaizta? Evo Morales Boliviako presidenteari eginiko elkarrizketa da ARGIAk ekoiztutako lehen lana.

Txomin Txueka arduratu zen kameraz, argazkilaria izanik gaitasun eta esperientzia gehiago baitzuen. Elkarrizketa azkarra eta laburra izan

zela du gogoan Arzallusek, eta agintarien ohiko protokoloetatik aldenduta, “gertukoa eta pertsona sinple” gisa deskribatu du Boliviako presidentea. Nabardura bat gehitu dio Arzallusek aurreneko bideoaren istorioari: “Lehen bideoa, izatez, La Paz hiriburuan ugariak diren kale zapatari bati egin genion elkarrizketa izan zen. Harekin probatu genuen nola funtzionatzan zuen eskuko kamera hark”.

Tramankulu berriarekiko inongo ezagutzarik eduki gabe eginiko lana izan zela dio Arzallusek, berak behintzat ez baitzekien nola funtzionatzan zuen kamera batek. Gaur egundik begiratuta “bertigo pixka bat” ematen diola aitortu du, baina lilura handiko “esperimentua” izan zela dio. Iritzi berekoa da Eli Pombo, 2006an ARGIAko interneteko arduraduna zena. “Gogo eta ilusio handiarekin” eutsi zion bideoa muntatzeko erantzukizunari. Gauza berria zenez, uste baino ordu gehiago eskaini behar izan zizkion, baina harro dio lehen bideoaren parte izatea “ohorea” dela. Irakurleen artean harridura sortu zuen, ARGIA bezalako hedabide txiki batek halako proiektua plazaratzea ez baitzen jendeak espero zuena. “Harrera oso ona izan zuen, baita etxe barruan ere: ilusio handiarekin heldu genion ikus-entzunezko esparruari”. ●

ORIA-TXIKI TABERNA

Eman jaten, jaten ematen dizunari

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Enpresa bakoitzak izaten du, kanpoan jateko ohitura badute behintzat, bazkaltzeko leku maiteren bat. ARGIAko lantaldeak Oria Txiki tabernarako joera du, Lasarte-Orian bertan, lantokitik metro gutxira. Han izan naiz aspaldiko partez, otorduetako karta berri duen aitzakian, eta zer bazkaldu erabakitzen ari nintzela han agertu zait: ARGIA ogitartekoa.

Karta irakurtzen segi dut eta konturatu naiz inguruko zenbait enpresaren izenak jarri dizkietela eskaintzen dituzten ogitartekoei. Tartean dira ARGIAren batera Ametzagaña Taldea osatzen duten Iametzagaña, Adur eta Antza ere. Ezin izan dut aguantatu, galdetu egin diot nagusiari zergatia. "Eskerrak emateko modu bat da", erantzun du Kontxik. Eguneroko bezeroak dira ogitartekoen izenetan agertzen diren enpresak eta "emandako konfidantzagatik eskertuta" daudela adierazteko era izan da hau. Aitortu du, penaz, eguneroko bezero diren norbanakoei ezin izan diela horrelako keinurik egin, baina ohituraz gerturatzeko zaizkion taldeei behintzat lortu duela errekonozimendu bat ematea.

Bederatzi dira denera, kartan irakur daitezkeen inguruko enpresak. Edozein lekutan topatu ezin diren ogitartekoak dira. Batzuen kasuan enpresa horretako norbaitek eskatutako errezetak dira. Beste batzuk, berriz, Kontxik berak sortuak. Baina denak ere



arrakasta izaten ari dira, karta berria martxa onean hasi da.

ARGIA ogitartekoa, esaterako, lantaldeko lagun batek sarri eskatu izan duena da. Dastatu nahi? Oria Txikira gerturatzea besterik ez duzu. Eta akaso, normalean bertan izaten direnez, ARGIAko kideren batekin egoteko aukera izango duzu.

Zenbat aldiz errepikatu ote dugu "eman eta hartu" kontzeptua... Eta hau

ere halaxe da. Hau ere komunitatea da. Oria Txiki ere Argia Jendea da. Harpidedun dira, gainera, eta denen eskura izaten dute beti aldizkaria. Kontxi bera euskaraz dakien pixka hori erabiltzen ahalegintzen da eta ARGIAko lantaldeak euskaraz funtzionatzen du berarekin. Euskaraz bizitzen laguntzen du.

Eskerrik asko zuri, Kontxi, euskarazko kazetaritza independentea eguneroko elikatzeagatik. ●

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu ARGIA Jendea-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditza-gun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.



**KAFE ANTZOKIAN BAZKARIA
2 LAGUNENTZAKO**

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Uztailak 4, osteguna, 10:00etan

“Errealitatea baino gehiago interesatzen zaizkigu mitoak”

**Jaione Irazu,
Oskarbi Sein eta
Beñat Iturrioz**

Ataun of the dead
trilogiaren egileak

Bi zientzialari karlistak Zumalakarregi berpiztu zuten aurrena (*Ataun of the dead*, 2012). Agirre lehendakariak gidatutako Eusko Alderdi Banpirikoa garaitu zuten ondoren (*Joxean's Hil Eben*, 2014). Orain, Zumalakarregik asmo handiak ditu: euskaldun guztien errege izendatu nahi du bere burua, eta Iruñera abiatu

da horretarako. Baina kasu: bidea uste baino katramilatsuagoa egingo zaio, ezker abertzaleak Antso Azkarraren momia berpiztu baitu, nafar erresuma berrezarritz tronua berreskuratzeko: *Napardeath*-en estreinaldiarekin gailurrera iritsi da azken hamarkadan euskal zinematik eman duen proiekturik entretenigarriena.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO - KATI HOTSAK



Harrikadak bururatzetik gauzatzera dagoen jauzi horrek uste baino gehiago baldintzatu ditu Beñat Iturrioren, Jaione Irazuren eta Oskarbi Seinen bizitzak. Azkenetako, bederatzi urtean zehar, Katihotsak Logiako gainontzeko kideekin batera, ordu pila ederra pasa dute gidoiak idazten, grabaketak prestatzen, mozorroak egiten, jendea lotzen, eta, behin filmak osatutakoan, herriz herri aretoetan proiektatzen, *merchandising*-eko kamisetak inprimatzen, saltzen, elkarriketak eskaintzen. Utikan goi-arnasa, utikan handinahikeriak, euskal pertsonaia historikoak berpiztu eta zombien arteko gudak ekarri dituzte pantailara *Ataun of the dead* trilogian. Hernaniko Iturrolan hartu gaituzte, haietako bi berriki lanean hasi diren gunean –ikus-entzunezko sektorean hasi ere–, eta urteotako bizipenen errepasoa egin dugu, klase guztietako trenak –aldirietakoek, estatu mailakoek, kargamentudunek– utzitako hutsarteetan zehar.



Orain dela bederatzi urte trikuharriak katalogatzen ari zinetela bururatu omen zitzaizuen trilogia osatzeko ideia.

Beñat Iturrioz: Bai, Xabier Padin eta biok Suhar arkeologiakoekin aritzen ginen lanean. Ataunen genbiltzan trikuharriak bilatzen, GPS lokalizazioei segika, ze egoeratan zeuden ikusten, argazkiak ateratzen... Eta noski, zortzi ordu pasatzen dituzunean sasi artean bueltaka, zer egiten duzu? Txorakeriez hitz egin. Garai hartakoa da *Dead Snow*, zombi naziei buruzko filma, baina gene-

ro hori betidanik gustatu zaigu: *Night of the Living Dead*, *Town of the Living Dead*... Padinek bota zuen ez zirela zombiei buruzko nahikoa film egiten. Biok historia ikasitakoak gara. Orduan otu zitzaigun trilogia: lehenengoan Zumalakarregi berpiztu, bigarrenean Agirre lehendakaria jarri Zumalakarregiren aurka, eta hirugarrenean Antso Azkarra sartu. Bozeto txiki bat egin, eta enbido hark ekarri gaitu honaino. Luzea izan da bidea.

Bururatzea, tira... egiten hastea da benetan harrigarria.

Oskarbi Sein: Beñatek badu jendea erakartzeko gaitasuna. Beste edonork ez luke lortuko, baina Beñat proiektu batekin hasten bada, sinesten duzu ziur asko proiektua gauzatu dela. Eta inguruko jendeak segi egin genion, tonto samarrak ere bagara eta...

B. Iturrioz: Pinguinoen artean, beti omen dago bat bere burua itsaslabarrean behera botatzen duena iceberg-ean zuloa egin eta itsasora iristeko. Lehenengoa suizida bat izaten da, eta gero atzetik jarraitzen diote besteek. **Jaione Irazu:** Niretzat garrantzitsuen jarraitzen dion lehenengo hori da. Harria botatzen duenari jarraitzen dion ingurua sortzen duelako.

Horixe bera dio *How to create a movement* bideo famatuak: liderra baino, lehen jarraitzailea dela mugimendua sortzeko garrantzitsuen.

J. Irazu: Sortzaileak eta ideia jenialak mitifikatuta daude. Ideiak mundu guztiak ditu, baina horiek gauzatzeko esfortzua egin behar da, orduak sartu behar dira. Balio handia ematen diot horri, nik neuk ez baitut esfortzu handirik egiten (barrez).

O. Sein: Ez daukagu ikus-entzunezko formakuntza profesionalik, baina oso film jaleak izan gara beti. Hazia hor zegoen. *Ataun of the dead*-ek oihartzuna eduki zuenez, saiatu ginen bigarrena hobeto egiten.

B. Iturrioz: Tristeena hori da, lehenbizikoak oihartzuna izan zuela. Horrek erakusten du zer gertatzen den euskal kulturaren. Gorozki horrek arreita deitzaek esan nahi du ez dagoela ezer (barrez).



Euskarazko film on bat egiteko hamabost txar egin behar badira, prest omen zaudete hamabost txar horiek zuek egiteko.

B. Iturrioz: Bi teoriaren nahasketa da hori. Batetik, ez dakit nork esan zuen, kultur ekoizpenaren %95 zaborra dela. Gainontzeko %5a harribitxia, beraz. Mila hektareako zelai bat badaukazu hirusta orriz josita, errazago topatuko duzu han lau orriko hirusta bat. Aldiz, zure etxeko lorontzian nekez aurkituko duzu halakorik. Zenbat eta gauza gehiago ekoitzi, estatistikoki gertagarriagoa da deus onik ekoiztea. Bestetik, unibertsoa energia guztia orekatu egiten denez, guk sortutako energia negatiboa beste nonbait positiboa bihurtzen da. Gaizkia egiten ari gara, ongiaren alde. Guk gauza txar asko egiten badugu, hemen inguruko norbaitek sortuko du obra gailen bat. Bestela esanda, Harkaitz Canoren obra gorena idazten ari gara, alderantzizko osmosi bidez.

Ez zaitezte orain halako apalckerian hasi...

J. Irazu: Nik ematen diot balioa egin dugunari. Hasteko, ze hutsune dagoen agerian uzten duelako. Eta ate bat irekitzen diolako antzeko gauzak egin nahi ditue-





nari. Ikusle bezala gozatu egiten dut. Trilogia kokatzen da kokatzen den eremuan, baina lehen ez zegoen halakorik euskaraz. Gainera, dena natural eginda dago, prentsiarik eta handinahikeriarik gabe.

B. Iturrioz: Egiten duguna zinematik baino gertuago dago herri antzerkitik edo pastoraletik. Halakoetan jendeak nahi duelako hartzen du parte, herriko plazan erakusten dituzte, herritarrek ikusten dute... Auzolanetik ere asko du: jendea bere aisialdian laguntzera etortzen da, jatekoa eta edatekoa ematen diegu. Zinema industriak ez du horrela funtzionatzen.

O. Sein: Gogoratzen naiz lehenengo filma taberna batean estreinatu genuela. Guk bakarrik ikusiko genuela uste genuen. Ez genuen pentsatzen beste inon botako genuenik. Baina zabaldu egin zen... ez produktua ona zelako, hutsune bat betetzen zuelako baizik.

J. Irazu: Zuberoan kontatzen ziguten nola han beraiek sortu behar duten beraien kultur jardun guztia, kultur zirkuitu guztietatik kanpo daudelako. Kantugintza, pastoralak, antzerkia... guztia. Herriak herriarentzat sortzen du. Hemen ez gauda haiek bezain zirkuitutik kanpo, baina euskaraz ez dago film hauek bezalakorik. Hutsune bat zegoen, bai, baina ez ginen horregatik hasi. Hori gerora egindako irakurketa da.

Ataun of the dead-etik *Joxean's Hill Eben*-erako jauzia agerikoa da, ikus-entzunezko kalitateari dagokionez behintzat.

B. Iturrioz: Saiatu gara film bakoitzari ikusitako hutsuneak hurrengoan ez errepikatzen. Hizkuntza, generoa, lurraldetasunari dagokionean... *Ataun of the dead*-ekin Hazparneko Zinegin Festibalera joan ginen, eta han egiten dute *zinequiz* izeneko joko bat. Galderetako batean iradokitzen zen gure pelikulan Iparraldea ez zela existitzen. Azalpena dauka horrek: Iparraldea Frantzia zen Zumalakarregiren iruditerian. Vascongadak eta Navarra zeuden, eta kito. Ez zen oso koherentea tipoa berpiztu eta zazpi lurraldeez hizketan jartzea. Aldiz, *Napardeath* Gasteizen hasten da, Nafarroan garatzen da, Behe Nafarroatik eta Zuberoatik ere pasatzen da...

O. Sein: Gainera, lehenbiziko filmarekin ez bezala, *Napardeath* egiterako zazpi lurraldeetako jendea ezagutu dugu, eta horrek asko laguntzen du gauza horiek kon-tuan hartzen.

Pertsonaia historiko batzuei generoa aldatu diezue.

B. Iturrioz: Hori da esaten ziguten beste kontu bat: ez zela nahikoa emakume agertzen. Ez pertsonaia historiko bezala, ezta bigarren mailako pertsonaia gisara ere. Ez da edonolako erronka izan: batetik, emakumezko pertsonaia historiko asko bururatzeari zaila delako, eta, gainera, jendeak ezagutzea espero duzulako. Aspaldi aritu ginen talde feministetan galdezka ze pertsonaia ekar genitzakeen. Ze, noski, ez genuen edonor ekarri nahi. *Napardeath*-en Katalina Erausokoa sartu dugu –pertsonaia gatazkatsua dena, bide batez–, eta aukera izan dugunean gizonazko zirenak emakume bilakatu ditugu –Antso Azkarra emakumea da, adibidez–. Bestalde, zinemagintzan ohikoa da lantalde teknikoan gizon gehiago aritzea, eta makillajean emakume gehiago. Gure kasuan ere lantaldekoak eta extra modura animatutako gehienak gizonak izan dira, eta ahalegin berezia egin behar izan dugu horri buelta emateko –nahiz eta ez dugun guztiz lortu–.

Gure burua ez badugu guk imajinatzen, besteek imajinatuko gaituzte. Zuek esana da.

B. Iturrioz: Historialariek idazten dute historia, edo kontrabandistek, baina garaileek, edozein kasutan. Sarri apolitikotzat jotzen dira historialariak, baina historia idazten duena politika egiten ari da, errelato bat kontatzen ari da. Agosti Xahok inoiz egindako ariketa bera egin nahi izan dugu. Gerra karlistetan Nafarroan izan zen, eta Zumalakarregi elkarriketatu zuen. Hor ageri den Zumalakarregi abertzalea da, euskal esperantza berria, eta abar. Gerora frogatu da elkarriketa hura ez zela gertatu, Xahok asmatu zuela. Errealitatea baino gehiago in-



teresatzen zaizkigu mitoak, gero horiekin gure herria elikatzeko. Berdin zaigu benetakoa ala faltsuak diren. Ze historian benetan zer gertatu den ere, auskalo. Egun garena justifikatzeko ez gara legitimitate historikoan oinarritzen. Euskaldunak gara hala nahi dugulako.

Santi Leoné ageri da filmean, eta berak ere halako zerbait dio *Euskal Herri imajinario baten alde saiakeran: Euskal Herria asmatua dela, eta, hain justu, asmatu delako existitzen dela.*

B. Iturrioz: Bai, halaxe da. Zinemak indar berezia du horretarako, filmetan kontatzen dena jendearen iruditerian geratu ohi da. Mark Legassek idatzitako Antso Azkarraren parabolak kontatzen da nola Antso Azkarra den aldi berean ezker abertzaleak eta espainolismoak mitifikatutako figura bat. Ustez, bera izan zen Nafarroa-

ra kateak ekarri zituena. Aldiz, Legassek erretratatzeko duen Antso Azkarra da tipo bat Granadan ardoak edaten ari zena, burdelez burdel zebilena, herria bost axola zitzaiona... Eta Granadan zebilela Gasteiz eraso egin ziotenean, ez zion askorik axola hura galtzeak. Historia mitifikatzeari kritika egiten dio Legassek, eta baita guk ere. Horregatik neurtzen du *Napardeath*-en Antso Azkarrak metro eta erdi, berez bi metrotik gora izan arren.

Afizioz ekin zenioten trilogiari, baina ia aisialdi osoa kentzen dizuen zerbait bilakatu da –proiektzioak, elkarrizketak, eta abar–. Pisutsu egiten da?

O. Sein: Nik, adibidez, ez nuen hirugarren hau egin nahi (barrez). Datak gerturatu ahala, pentsatzen nuen: “*Joxean’s Hil Eben* eromena izan zen, lokatz ederretan sartzeraz goaz”. Baina egin beharra zegoen. Gero oso ondo pasatzen dugu, eta produktua ikustean harro sentitzen zara. Sortzen duzunak betetzen zaitu. Gainera, bati beheraldiak ematen diotenean, beste batek tiratzen du, eta kito.

B. Iturrioz: Bai, *Napardeath*-ekin has-teak nagikeria pixka bat sortzen zigen. Baina zor bat geneukan geure buruarekin, eta, gainera, jendea presioa sartzen ari zitzaigun, “ea noiz egiten duzun hirugarrena”.

J. Irazu: Orain fresko daukagu prozesua, baina pixkanaka, distantziarekin, agian perspektiba aldatuko dugu eta ahaztuko dugu zein gogorra izan den.

O. Sein: Nik uste oraingoan ez zaigula ahaztuko (barrez).

Azken mezurik?

B. Iturrioz: Ez da laugarrenik izango. ●





LIBURUA

Erresistitzea denean garaitza



IRAUTERA CASTILLO SUAREZ

ELKAR, 2019. POESIA

IGOR ESTANKONA

Castillo Suarezzi zer edo zer gertatu zaio. Haizeak pinuaren adaburua lez inguratu du bizitzak, eta *Irautera* eder honen bitartez ekarri dizkigu zaur-garritasuna eta indarra, etsi gaiztoa eta kreatibitatea. Liburu bakanak dira horrela laburbiltzen dituztenak garai bateko gazi-gozaok, non gazia ez den hain gazi, non gozoa den *saihestezin* esateko beste modu bat: "Maitetasunak badu abantaila bat bederen:/ zauririk ez da egiten orbainen gainean".

Castillo Suarezzi zer edo zer gertatu zaio beraz. Eta nori ez.


Musika talde bateko kide guztiak momentu magiko batek jota egon eta diskoa grabatzen dutenean bezala, grazia egoeran daude hemen Castillo guztiak. Autoafirmazioarena, bakardadearena, feminitatearena. Denek batera konposatu dute pieza bat bakar, liburu honetako

poema guztiek osatzen baitute bakarra. Bere aurreko liburuak baino liburuago, *Irautera* hiztegi bat ere bada maitasunaren botanikaz hitz egiten diguna. Eta aurreko liburuen aldean sinbolismo arean gutxiago ere nabari zaio, errealismo minimalista bat darabil-eta, non ñabardura guztiak diren inportanteak: "Ez kantarik, ez argazkirik./ Joan zinenetik/ saihesten ditut mendiak zein ibaiak".

Hizkuntza bera bihurtzen da honen bestez bide bat baso-paisaje batean barna doana: "Nik elurra maite dudala esango dizut,/ eta iparralderantz joango gara,/ (...)/ Galdu dudak guztia zarella iruditzen zait batzuetan". Indefinizio horretan, agurraren eta esker onaren artean gauduan bezala gauzka zur eta lur, ahapaldi botere-tsu eta eleganteetan gogoia lotzen zaigularik gu geuri gertatu zaizkigun gauzei beha: galdu duguna, galduz irabazi duguna.

Poema luzeetan erritmoaren bilaketa eta laburretan birfinketa, dena agerian daukan liburu honek halabeharrez eduki behar zuen agerian edertasuna ere: "Dena kontatu nahi dizut. Zure begietara etorri. Gauza arruntak egin. Kanean eskutik heldu, lotsatzen bazara ere. Elkarrekin etzan sutxakurrak behatzeko".

Egin zezakeen abailduraz Castillo oportunismoa, baina kontrara erabaki zuen denok biltzea lorategi batean, Galaretan, ekaineko eguzkipean, garia berde oraindik, bizi garela ospatzeko. Han jende guztia zegoen harro bere laguna izateaz, *Casti-k* ikusarazita agian horixe dela, alboan egote hutsa, egin daitekeen mesederik handiena. Zintzotasunez idatzitako poemategi bat aurkeztu zigun, orain esku artean urtzen zaidana, pinu artean dabilen haizearekin zorrazkitzeko idatzia. ●



KONTZERTUA

Bidaietako notak



POSTAL KOLEKZIONISTAK TALDEA TOLOSAKO LEIDOR ARETOAN, DISKOA AURKEZTEKO EMANALDIAN (ARGAZKILARIA: IÑAKI LOPETEGI).

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Talde berri bat da Postal Kolekzionistak, Tolosaldekoa, duela urtebete inguru sortua. Iñigo Asensio (ahotsa, gitarra, ahosoinua), Ander Zubillaga (gitarra), Juanjo Falcon (baxua), Irene Lopez (teklatura) eta Michel Longaron (bateria) dira partaideak. Talde trinkoa osatzen dute, eta elkarrekin jotzen ederki moldatzen direla antzeman daiteke, giro onean aritzen direla.

Musikari bikainak dira, eskarmentu handikoak, besteak beste, Iker Lauroba, Izaro, Maider Zabalegi, Zesuma, Governors, Labrit, Manent, Imanol Larzabal, 21 Japonesas eta Duncan Dhu taldeetan arituak. Irene Lopez izan ezik, talde batean jotzen duen lehen aldia baita harentzat.

Iñigo Asensiok sortu ditu doinuak eta hitzak, eta kantak sei urtean hoge herri

baino gehiagotara egin dituen bidaietan idatzitako postalak direla esan daiteke. Pop-rock kutsuko kantak dira. Pasarte lasaiak eta indartsuak entzun daitezke, ongi osatuak eta jantziak, melodia politekin, eta erritmo eta kolore ugarirekin.

Zenbait toki eta egoera ageri dira kantetan, eta entzuterakoan une gazi-gozoak eta hunkigarriak suma daitezke. Bidaietan bizi daitezkeen sentimenduak eta emozioak, baina batez ere, bakardadea, nostalgia, maitearen ondoan egoteko desioa: "Nire bidaia koadernoan idatzita daramatzat zure izenaren alboan azken tren geltokian esan nizkizun hitzik ederrenak, eta ondoan bakardadea daramat, arima maleta barruan" (*Azken gaua hirian*), "Zure bila dabilen nomada sustraitua naiz"



AZKEN GAUA HIRIAN POSTAL KOLEKZIONISTAK

AUTOEKOIZPENA 2019

(*Hareazko erlojua*), "Ez zaitzala inork gelditu edonorako itzuleran, bueltan nahi zaitut" (*Bueltan*), "Egunik luzee-netan eguzkipean dator denboraren epaiketa" (*Uda garaia*).

Laura Lizumak egin du diskoaren azala, Ander Zubillaga arduratu da ekoizpenaz, eta grabazio saioetan kolaboratzaile hauen laguntza izan dute: Xabier Zeberio, Markel Zeberio, Elene Arandia, Lide Hernando, Charlie Atkey, Iker Lauroba, Olatz Salvador, Leire Berasaluze, Elene Arandia, Jon Martin, Aitor Zorzano, Nicolas Andino eta Beñat Larrauri. Diskoa jendaurrean aurkezteko emanaldia maiatzaren 10ean egin zuten Tolosako Leidor aretoan, eta datozen asteetan kontzertu gehiago egiteko asmoa dute. ●



Montauk

 MARTA SENDIU
 DOS POR DOS

Esperimentazioak eta giro-musikak espazioa hartzen dute bere osotasunean, baina *Montauk*-en zerizana zein den ahaztu gabe. *Geruzak* izeneko bigarren disko honek, amets luze eta sakon batean murgiltzen laguntzen gaitu; errealtatetik urrunduz, baina arazoetatik salbuetsi gabe.

Gasteizko Jimmy Jazz aretoko ateak zabaldu egiten dira, eszenatokia kez betetzen den heinean. Fokuek urdintasun kutsua ematen diote ostegun gau euritsu honi eta musikariak oholtzan agertzen dira.

Iluntasuna da nagusi aretoan. Hurbiltzen doazen hots arin batzuk hasten dira entzuten eta haiekin batera ahots xuxurlatu batek aurkezten digu *Hegazkina* abestia. Gitarra gehitzen diote eta harekin batera bateriaren erritmo itsaskorra. Leuntasuna eta samurtasuna sartzen zaizkizu gorputzean, doinu lasai eta finak gerturatzen joaten dira zure belarrietara, gauean loak hartzen zaituen lez.

Lehenengo abestiarekin abstraitze-ko gaitasuna bereganatuz, gitarraren arpegioek markatutako erritmoa sintetizadoreen laguntzarekin topatzen da. Horren bidez murgiltzen gara gure pentsamendu propioen hutsunean flotatzen.

Kontzertuaren erdialderantz gerturatzen goazen heinean, dunbal soinu konstante eta erritmiko bat entzuten da. Elektronikaren joera nabaritzen da eta uztartu egiten ditu perkusio, gitarra eta baxuarekin batera. Bide minimalista batetik eramaten gaitu dantza egitera, Berlin hiriko gauean egongo bagina bezala.

Barru huste eta garrasi askatzaille bat eta gero, diskoari izena ematen dion abestira heldu gara, *Geruzak*. Gitarra eta bateriaren arteko jolasa, ahots gardengoa batekin lagunduta doa. Pop joera duen abesti honek, freskotasuna ematen dio giroari eta Gorka Etxebarria bateria-jolearen gozotasun eta sentsibiltatearen agerian geratzen dira.

Hurrengo emanaldia:

Ekainak 28/30 · EHZ Festibala · Irisarri

Amaierarako bidea harturik, Beñat Goitia, bakarrik geratzen da musikazaleen aurrean. Gitarra esku artean eta oinetan loop-a dantzan duela, haien lehendabiziko diskoko *Ezintasuna* abestiaren bertsio berri bat batean. Arpegioak jo, grabatu eta haien gainetik beste zarata batzuk gehitzen dituen moduan, abesten hasten da bere ahots urratu eta xuxurlatu horrekin.

Abestiak aurrera egiten duen heinean, taldekideak sartzen joaten dira berriro eta hor konturatzen zara taldekide berri bat dagoela gaurkoan. Baxua, gitarra eta bateriaz gain, ordenagailu eta *sintee*kin lagun berri bat dutela. Bostek batera, *in crescendo* doa zarata eta konturatzen zarenerako azkenengo abestian sartuta zaude.

Geruzak diskoaren kontzertu hau, gure bakardadean sakontzeko aukera ezin hobea da. Norberaren hausnarketa eta ideiak, bake egoera batean pentsatzera eramanez, sentimenduak identifikatuz eta gure gogoeta guztiak ordena batera bideratuz. ●



Bertso-zopa

Osatu Unai Agirre Goiak 2016an Antzuolan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Konfesatuta hau esateko*. Gaia: Orain dela 80 urte hil zen zure aitona. Gaur, Elgetako Intxortako frontea egon zen lekura zoazte familia osoa. Ustez zure aitona ehortzita dagoen fosa irekitzera doaz.

Amona joan zan ta amarekin
noa dana _____.
Gure aitona kondenatua
besteen eskutik hiltzera!
Hainbeste urte pasa ditugu
askok _____ hitzera.
Kostata baina ausartu gera
hobi honetan _____
aspaldi gaixki itxi ziguten
_____ irekitzera.

Ahal dala ozen esan behar det
mundu denak _____ dezan
bala galdu bat etorriko zen
noraezean ta _____
eta gureztat konponbiderik
ez zen ez _____ ta ez han.
Aranzaditik deitu ziguten
zuloa _____ genezan
bera hil zutela banekin baino
agur ez genion _____.

_____ gordinak sortu izan du
ez dakit zenbat _____!
Ume garaia gogoratzen det
triste eta bero-bero
amonak _____ egingo zuen
hamar mila aldiz edo
Franco joan arren hau segitzea
ez zuen asko _____.
Eta batzuek berdintsu daude
_____ urte ta gero.



O	S	O	G	V	U	N	E	G	A	R	C	N	J	R
U	A	D	E	S	A	D	C	A	J	U	J	A	A	C
D	I	E	I	E	G	O	R	U	A	L	A	S	V	N
T	J	R	C	H	A	I	R	U	A	Z	S	E	T	I
R	A	D	T	E	A	D	E	G	U	T	F	R	D	B
U	K	N	A	M	R	I	O	F	V	N	H	P	F	C
G	I	E	I	E	R	T	A	K	B	F	T	V	T	U
M	N	E	S	N	E	V	I	K	U	S	I	V	L	N
M	L	B	A	P	G	T	O	I	A	B	D	O	P	H
Z	G	C	S	R	E	C	P	P	D	E	P	C	F	A
V	E	A	B	Z	E	R	P	F	T	S	D	D	P	L
G	F	R	T	L	T	Z	O	U	F	A	H	T	N	S
G	I	I	T	G	H	O	T	R	L	N	I	M	O	O
G	H	R	J	H	V	N	J	L	J	U	Z	E	O	E
J	Z	B	P	D	J	B	I	Z	I	T	Z	E	R	A
C	U	M	P	Z	J	A	A	M	H	B	D	S	E	L

Sudokua

ERRAZA

6	9	4	7			3		
	3	8	2				4	1
5				4				8
						6		
1		6	5		9	8		4
		3						
9				3				7
8	1				5	4	2	
		2			8	5	9	6

ZAILA

					8	7		6
6	4			9			2	
		2			6			
	1					3		
	8		3		9		1	
		9					5	
			4			2		
	7			5			6	8
9		1	7					

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



EZKER-ESKUIIN:

1. Zona, inguralde. Ongi finkatu gabe. **2.** Batzar. **3.** Izu. Aurpegi, begitarte. **4.** Laiaz lurra irauli. Zerez atzizkia. **5.** Einstenioaren ikurra. Bakoitzari hiru. **6.** Oinaren azpialdeak. Zabaldutako hitzaren erdian. **7.** Alajaina! **8.** Arrantza egiteko erabiltzen den metalezko tresna. Tetelea, kaikua.

GOITIK BEHERA:

1. Trebetasuna. **2.** Argazkiko herria (Nafarroa). **3.** 552 zenbaki erromatarrez. Bi gehi bi. **4.** Interjekzioa. Eskumena, boterea. **5.** Puskaka. **6.** Motz. Laugarren musika nota. **7.** Nahaste. Ubeldura. **8.** Azienda, abere multzoa. **9.** Pastoraletako antzezle.

EBAZPENAK

Amona joan zan ta amarekin/ noa dana bizitzera./ Gure aitona kondenatua/ besteen eskutik hiltzera./ Hainbeste urte pasa ditugu/ askok hitzetik hitzera./ Kostata baina ausartu gera/ hobi honetan biltzera/ aspaldi gaixki itxi ziguten/ zauria irekitzera./ Ahal dala ozen esan behar det/ mundu denak jakin dezan/ bala galdu bat etorriko zen/ noraezean ta presan/ eta gureztat konponbiderik/ genezan/ zure hil zutela banekin baino/ agur ez genion esan./ Gerra gordinak sortu izan du/ ez dakit zenbat endredo/ Ume garaia gogoratzen det/ triste eta bero-bero/ amonak negar egingo zuen/ hamar mila aldiz edo/ Franco joan arren hau segitzea/ ez zuen asko espero./ Eta batzuek berdintsu daude/ laurogei urte ta gero.

5	3	3	5	2	2	7	8	1	7	1	9	6
8	5	3	1	6	8	2	7	4	9	5	3	5
6	7	1	2	7	2	2	4	3	3	5	8	
5	7											
5	8	7	3	7	3	6	6	1	9	6	6	
2	2	6	3	5	5	8	9	5	4	1	1	4
7	3	2	3	5	5	7	7	7	4	1	1	4
8	1	4	4	6	9	8	1	7	3	2	2	3
6	9	8	1	7	6	7	6	7	3	8	7	4
1	9	5	2	3	8	7	4	6				

ZAILA

3	4	2	1	7	1	7	1	9	6
8	1	7	6	9	5	5	4	2	3
9	6	5	4	3	2	1	8	7	
4	5	3	8	6	8	7	2	1	9
1	7	7	2	6	9	9	9	3	4
7	5	5	2	5	2	1	4	6	7
2	8	3	1	4	6	6	6	7	5
8	1	6	4	3	7	7	6	6	8
7	3	8	2	5	6	9	4	1	
6	9	4	7	8	1	3	5	2	

ERRAZA

O	S	O	G	V	U	N	E	G	A	R	C	N	J	R
U	A	D	E	S	A	D	C	A	J	U	J	A	A	C
D	I	E	I	E	G	O	R	U	A	L	A	S	V	N
T	J	R	C	H	A	I	R	U	A	Z	S	E	T	I
R	A	D	T	E	A	D	E	G	U	T	F	R	D	B
U	K	N	A	M	R	I	O	F	V	N	H	P	F	C
G	I	E	I	E	R	T	A	K	B	F	T	V	T	U
M	N	E	S	N	E	V	I	K	U	S	I	V	L	N
M	L	B	A	P	G	T	O	I	A	B	D	O	P	H
Z	G	C	S	R	E	C	P	P	D	E	P	C	F	A
V	E	A	B	Z	E	R	P	F	T	S	D	D	P	L
G	F	R	T	L	T	Z	O	U	F	A	H	T	N	S
G	I	I	T	G	H	O	T	R	L	N	I	M	O	O
G	H	R	J	H	V	N	J	L	J	U	Z	E	O	E
J	Z	B	P	D	J	B	I	Z	I	T	Z	E	R	A
C	U	M	P	Z	J	A	A	M	H	B	D	S	E	L

LOKA, 2. BILTZAIA, 3. IZU ABEGI,
4. LAIATU, 5. ES, HIRUN,
6. ZOLA, 7. ALAFED, 8.
AMU, ALU,
GOITIK BEHERA: 1. ABILEZIA,
2. LIZASO, 3. DIU, LAU, 4. ET,
5. ZATIK, 6. LABUR,
7. ORE, UEL, 8. GANADU,
9. ARIZALEA.

Júlia de Orovio

AUZOA ZUTIK



AUZO BERRIA MARRAZTEN

"2002ko hirigintza plana birdefinitu nahi genuen, baina orri zurian marrazten has-tea ez da horren sinplea. Urte horietan guztietan prozesua martxan eduki dugu, eta galderak ugari izan dira: Zer esan nahi du hirigintza sozialak, auzo-herria nahi badugu? Nolakoa da auzo-herria? Nola egiten da? Apurka-apurka, galderak erantzuten joan gara. Lan teorikoa izan da, eta bukaerarako bagenituen marraztuak eraikinen formak, gunek berdeak, espazio publikoak. Guzti hori hausnarketa prozesuaren emaitza izan da".

"Azken finean, hori da sekretu bakarra: lan egin eta auzoa biltzea"

Zeresana ematen duen Bartzelonako auzoa da Vallcarca. 2008an bertako eraikin ugari bota zituen inposatutako hirigintza planak, eta geroztik auzoak borrokan dihardu entitate publikoen eta interes pribatuen aurka. Júlia de Orovio auzoko bizilaguna eta *Assemblea de Vallcarcako* partaidea da, eta auzoko *Voltes* arkitektura kooperatiban egiten du lan.



ALEXANDER MARTÍNEZ ITURRIA



JORDI BORRÀS

Bartzelonan, etxebizitza arazoez, gentrifikazioaz edota auzoen erresistentziaz hitz egitean, sarri hizpide den auzoetako bat da Vallcarca. Zergatik?

1976an Bartzelonako Metropoliko Lurralde Plana aurkeztu zenean gurutzeari jarri zioten auzoari. Ia 30 urte beranduago, 2002an, desjabetzeak hasi ziren ematen, eta 2008an eraikinak eraisteari ekin zioten. Plana birdefinitzeko lana hasi zuen orduan auzoko asanbladak, hirigintza plana gelditu eta moldatzeko xedez. Zer-nolako auzoa nahi genuen pentsatzen hasi ginen. Arretaz ari gara, gentrifikazioaren beldur: besteak beste, alokairuen prezioa kontrolatzeko borrokan gabilta.

Gentrifikazioa aipatu duzu, egun askoren ahotan dabilen hitza.

Nola definituko zenuke?

Gentrifikazioa prozesu bat da, zeinetan auzo baten ehun soziala aldatzen den. Auzoa degradatzen da, eta bertako

jendeak auzoan gustura egoteari uzten dio. Prozesuak beste sektore sozial bat dakar auzora: izan daitezke gazteak, ikasleak, artistak edota okupak. Auzoaren itxura hobetzen doa, eta aldaketa esanguratsua ematen da: denek bizi nahi dute bertan, eta denentzat lekurik ez dagoenez, klase altuagoko jendeak hartzen du behe klasekoen tokia.

Gentrifikazioa turismoarekin lotu ohi da. Vallcarcako egoerak badu turismoaren eraginik?

Bai eta ez. Egia da Park Güellera garatatzeko kalea turistentzako den-dez gainezka dagoela, eta ziur naiz lokalen alokairua ez dela merkea. Baina auzoko alde zaharreko betiko denden itxiera ez du turismoak eragin, baizik eta hirigintza planek, udaletxeak, eta Núñez y Navarro enpresa eraikitzaileak. Horiek dira auzo apurto dutenak, lehen zeuden aroztegi, okindegi eta abarrak eraitsi dituztenak. Hirigintza planak dira auzoak kondentatzen dituztenak.



"AUZO-MUGIMENDUAK INDAR HANDIAGO DAUKA ARKITEKTO BAT TARTEAN DENEAN, UDALAREN LENGOAIA BERA DARABILELAKO".

2008an auzoko hainbat eraikin eraitsi ziren. *Assemblea de Vallcarca* honen ondorioz sortu al zen?

Lehen taldetxo ugari zeuden auzoan, bakoitza bere lan egiteko moduarekin: okupak, Ateneoko jendea, *Heura Negra* taldeko kideak, anarkistak, *l'Antic Forn* elkarteak... M15 mugimenduaren harira hasi zen auzoan asanblada antolatzen 2011n, eta berau bilakatu zen koordinazio gune. 2014ko parte-hartze jardunaldien ondoren udaletxeak zilegitu gintuen, eta orduan mahaigaineratu ziren hainbat gai: nolako auzoa nahi genuen erabaki zen, baita hirigintza plana aldatzeko beharraz edo Núñez i Navarro enpresa eraikitzailea auzotik kanporatzeko borondateaz hitz egin ere.

***Assemblea de Vallcarca*-n ez ezik, *Voltes* arkitektoen kooperatiban ere egiten duzu lan. Zein da arkitektoaren rola horrelako prozesuetan?**

Badago alderdi teknikoa, guztiz ezezaguna zaiena auzokideei: gure lanaren zati interesgarri bat da jakinduria hori

transmititzea. Orain Vallcarcan denek dakite zer diren tipologia, bolumena, metro karratuak... beren burua babesteko "hirigintza masterra" egin duen jendea da. Auzo-mugimenduak indar handiago dauka arkitekto bat tartean denean, udaletxearen lengoaia bera darabilelako.

Hirigintza plan batek auzoa kondenatu dezakeela esan duzu. Alabaina, arkitekturak zein hirigintzak, lagundu ere egin dezakete auzo bat, ezta?

Guk arkitektoen eta auzoaren arteko bilkura dugu. Vallcarcak ezberdin funtzionatu du arazoari gerturatzeko izan duen moduagatik. Ni guztiakin biltzen naiz egunero, hausnartu egiten dugu, denon artean erabaki zer behar dugun. Lan horren ondoren jasotzen dut eskaera zehatza, egin behar diren planoak. Denon arteko elkarlana da. Arkitektoak ez du irtenbiderik ematen, irtenbidea bilatzen dagoenari laguntzen dio.

Euskal Herriko hainbat hiritan ere auzo ugari hasi dira beren egoera salatzen. Vallcarcako prozesua bizi ondoren, zein gomendio emango zenieke?

Lehenik eta behin antolatzeko eta lan asko egiteko prest egiteko esango nieke. Auzoetan askotariko jendea bizi da, eta denon artean antolatu beharra dago. Gure kasuan *Assemblea de Vallcarca* izan da bilkura gunea: ia-ia atez ate joan gara, auzokideei egoera zein zen azalduz eta asanbladetara etortzeko gonbita luzatuz. Behin auzoa mobilizatu zenean manifestazioa egin genuen, eta komunikabideen bidez ere presioa egin dugu, ahal izan ditugun elkarrikteta guztiei bide emanez. Udaletxearekin harremanetan ere hasi ginen gero.

Erakundeekin lan egitean proposamenak argi eramatea da garrantzitsua, bilera aurretik aukerak eta dokumentuak ongi-ongi landu behar dira. Azken finean, hori da sekretu bakarra: lan egin eta auzoa biltzea. ●



Lau gizonak ez dute iritzirik eman oraindik “feminismoaren ikuspegitik” Goenaga eta Varelaeren arteko polemikaz



“Nik nahi nuke gaiari buruz iritzi bat eman, baina wifi gabe geratu naiz aste honetan eta ezin izan dut ezer txiokatu”. Esaldi horrekin desenkusatu da Txomin Tolosabe, 29 urteko Elorrioko bizilaguna. Bera da Barbara Goenagaren eta Irantzu Varelaeren arteko polemikari buruz “ikuspegi feminista batetik” iritzirik eman ez duen Euskal Herriko lau gizonetako bat. “Ahal bezain laster idatziko dut zerbait”, gaineratu du; eta bere iritzia- ren nondik norakoak aurreratu dizkio

esklusiban Beranduegiri: “Garbi dago emakume gehienak ezjakintasunetik ari direla asunto honetaz. Jakina, ez dituzte Judith Butlerren, Simone de Beauvoirren eta Angela Davisen audio-liburuak irakurri. Espero dut nire iruzkinak lagunduko diela benetako feminismoa deskubritzen”. Oraindik iritzirik eman ez duten beste hiru gizonak garrantzia kendu diote gaiari eta Beranduegin Rea- laren azken fitxaketaz zergatik ez dugun idatzi galdetu dute. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Donostiako hospitaleam



INDEPENDENTZIA 2021EAN LORTUKO DUGULA ADIERAZI DU ARNALDO OTEGK, 5G-REN AURKEZPENEAN, KOREAN.

5G teknologiari esker EAJk oposizio sinesgarri bat eduki dezake aurrean


Mundua asko aldatuko da 5G teknologia indarrean sartzearekin batera eta adituen ustez, aurretik ezinezkoak ziruditen gauzak posible bihurtuko dira. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan EAJri benetako oposizioa egitea ahalbidetuko du teknologia berriak. “Oraingoz 5G teknologiari esker lortu da tamaina handi samarreko dragoi holografikoak sortzea”, esplikatu du Gorka Troñi adituak. “Badakigu

txikikeria dela jeltzaleei aurre egitera ausartuko den zerbait sortzearen aldean, baina teknologia honekin posible izango dela uste dugu”. Proiektuak, hori bai, kostu handi samarra izango du. “Kontuan hartu zerotik hasi behar dugula, aurrekaririk ez duen zerbait sortzeaz ari baikara”. Horregatik, eta Eusko Jaurlaritzak proiektuari diru-laguntzak ukatu ostean, crowdfunding bat jarriko dute abian. ●



SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Oresa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

PAPE NIANG HASIERA BERRI BAT

Mikel Garcia Idiakez

Amut bain nã ku leagala



 ARGIA



LIBURUA
SALGAI!
14€

EROSI HEMEN: AZOKA.ARGIA.EUS

